

ttipi-ttapa



POLIKI... BAINA ARI DIRA

Covid-19aren kontrako txertoa hartzen lehenbizikoak zahar etxetakoak izan ziren; gero osasun langileen, langile soziosanitarioen eta egoera zaurgarrian daudenen txanda izan zen. Handik guttira irakasleekin hasi ziren eta azken asteotan 80 urtetik goitiko adinekoak txertatu dituzte Leitzan, Elizondon, Lesakan eta Donezteben. Aste Santuaren ondotik 70-79 urte artekoak eta arrisku handikoak txertatzen hastekoak direla errana du Nafarroako Gobernuak.

JUAN MARI ONDIKOL

Ikasleak karrikak hartzeko prest

«Ikasleak erdigune dituen hezkuntza» aldarrikatuko dute apirilaren 21ean egingen dituzten mobilizazioetan. / 12

SINADURAK



FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI / 3



AITOR AROTZENA ALBIZU / 3



MIREN RUBIO ITURRIA / 4



MIKEL TABERNA IRAZOKI / 4



Josune Sorando Oñozola
72873152-A
2021/04
372


ZOZKETA / 56



Joxean Ortega Irungo
Harrera Sareko kidea
mugak ixtearen
ondorioez aritu da / 8

Pandemiak bete-
betean eragin dien
dantza taldeei
begira / 10

Mendialdeko
baserritarren
elkartea sortu dute:
Habelarte / 30



Imanol Etxeberria
Arizkungo
alkatearekin kontu
kontari / 40

BERA LESAKA

Agenda 2021

APIRILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

**LESAKAKO
UDALA**

10 LARUNBATA	MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA	<p style="text-align: center;">BERA</p> <p style="text-align: center;">10:30-13:30 Beralandetan</p>
10 LARUNBATA	ANTZERKIA ILARGIAREN ATZEAN	<p style="text-align: center;">LESAKA</p> <p>Sarrera 5€ 18:00 Harriondoa Kultur etxean</p> <p>Antolatzailea Lesakako Udala eta Nafarroako Antzoki Sarea</p>
15 ORTZEGUNA	SOLASALDIA ESCUDO DE EUSKAL HERRIA	<p>Antecedentes históricos y situación actual (Andoni Esparza)</p> <p>Hizkuntza Gaztelera 19:00 Kultur etxean</p> <p style="text-align: center;">BERA</p> <p>Antolatzaileak Berako Kultur Batzordea eta Berako Udala</p>
16 ORTZIRALEA	LITERATURA SUGARREN MENDE	<p>Asisko Urmenetaren liburu aurkezpena</p> <p>18:30 Harriondoa Kultur etxean</p> <p style="text-align: center;">LESAKA</p>
17 LARUNBATA	BERTSO BAZKARI LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA	<p>Sarrera 32€</p> <p>Bertsolariak Eñaut Agirre eta Unai Agirre</p> <p>Antolatzailea Bortziritako Bertso Eskola, Lesakako Udala eta Lanku</p> <p style="text-align: center;">LESAKA</p>
17 LARUNBATA	KONTZERTUA TXAMUKOS MARIATXIAK	<p>19:00 Harriondoa Kultur etxean</p> <p>Sarrera 6€</p> <p style="text-align: center;">LESAKA</p>
18 IGANDEA	KONTZERTUA BEFORE IT'S VANISHED (RÜDIGER)	<p>Felix Buff-en lehen diskoa; Johannes Buff eta Joseba Irazokirekin</p> <p>18:00 Kultur etxean Iraupena 45 min</p> <p>Sarrera 6 € (sarrerak aitzinetik Agara prentsan salgai)</p> <p style="text-align: center;">BERA</p> <p>Antolatzaileak Berako Kultur Batzordea eta Berako Udala</p>
19 ASTELEHENA	SOLASALDIA TODO LO QUE DEBES SABER SOBRE EL MODELO DE INMERSION EN EUSKERA	<p>(Paula Kasares Corrales)</p> <p>Hizkuntza Gaztelera 17:00 Kultur etxean</p> <p style="text-align: center;">BERA</p> <p>Antolatzaileak Bortziritako Euskara Mankomunitatea eta Berako Udala</p>
19-30 ASTELEHENETIK ORTZIRALEA	ERAKUSKETA ETXEPAREREN ALBUM ILUSTRATUAK	<p>14:00-20:00 Herri liburutegian</p> <p>Argibide gehiago www.etxeparesaria.eus</p> <p style="text-align: center;">BERA</p> <p>Antolatzaileak Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Berako Kultur Batzordea eta Berako Udala</p>
22 ORTZEGUNA	LITERATURA SUGARREN MENDE	<p>Liburu aurkezpena eta solasaldi ilustratua. (Asisko Urmeneta eta Helena Xurio)</p> <p>18:00 Kultur etxean</p> <p style="text-align: center;">BERA</p> <p>Antolatzaileak Berako Kultur Batzordea, Berako Udala eta Berako Liburutegia</p>

Liderrak gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan CIEsek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

ttipi-ttapa

32.000 irakurle

Diario de Noticias 10.000 irakurle

Diario de Navarra 7.000 irakurle

Bertze batzuk 5.000 irakurle

Gara 1.000 irakurle **Berria** 1.000 irakurle

DATU ITURRIA: CIES, 2020ko metatuak

SEXUAREN ARABERA

♀

%60,3

EMAKUMEAK

♂

%39,7

GIZONAK

ADINAREN ARABERA

Adina (urte)	Irakurle %
14-19	11,2
20-24	1,8
25-34	13,9
35-44	14,1
45-54	18,9
55-64	15,3
+64	24,7

IKASKETA MAILAREN ARABERA

%16,3

Oinarrizko ikasketak

%41,2

Unibertsitatea

%10,7

Oinarrizko batxillergoa

%31,8

Goi mailako batxillergoa

SINADURA: Ttipi-Ttapa



NIRE TXANDA

FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI

Euskara edo ez gara

«Ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?», hala dio denok noizbait kantatu dugun *Euskal herrian euskaraz* kantu ezagunak. Berriki, martxoaren 28an, Euskal Herriko xoko aunitzetan elkarrekin kantatu genuen, egun horretan bukatuko baitzen aurtengo Korrika. Ederra da kantua, baina hutsala, praktikara eramaten ez badugu. Alferrikakoa da euskaldun izatea erabili ezean, alferrikakoa gure curriculuma loditzeko soilik bada. Gure seme alabak D ereduan matrikulatu eta euskaldun bilakatzea bada zerbait, doike, baina egunerokoan ez badugu erabiltzen museoko pieza bilakatuko dugu. Nik ez dut euskararen fosilak, tartean hizkuntza bera, bilduko dituen museo eder eta hunkigarri bat nahi. Nik haurrak euskaraz jostatzen entzun nahi ditut, nerabeak euskaraz kantatzen, helduak euskaraz solasean... euskara biziarekin hunkitu nahi dut, eta hori horrela izan dadin ahaleginak egingen ditut. Eta zuk?

Euskararen jabe izatetik (euskara denon altxor bizidun gisa ulertua) euskararik gabe gelditzera bide laburra egon daiteke, euskara erabiltzen ez badugu.

«EZ DUT EUSKAREN FOSILAK BILDUKO DITUEN MUSEORIK NAHI»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

XXI. mendeko portugesak Bidasoan

Atlantikoa zeharkatu dute, Mediterraneo zeharkatu dute... Nola ez dira bada Bidasoa zeharkatzen saiatuko? 2021eko martxoaren 17an Irungo Harrera Sareko kide batek egindako adierazpenak... Eta niri joan den mendean ibaia zeharkatu behar izan zuten portugesak, aziendak, Comete Sareko kideak... datozkit burura. Aunitzentzat azken saltoa izan zen.

NABARMENTZEKOAK



KANDIDA MITXELENA
HILBERRIA



PELLO IRIARTE
IRURITAKO ALKATEA

101 urterekin martxoaren 11n zendu zen Kandida Mitxelena Jorajuria sunbil-darra. Arkupeak erretiratuen elkarteak ere gogoan izan du, 1992az geroztik elkarte-ko kidea zelako.

Pello Iriarte Zelaieta da Iruritako alkate berria. Martxoaren 27an egindako batzarrean hautagai bakarra aurkeztu zen eta hala bera izendatu zuten ondoko bi urteetarako alkate.

ATZERA BEGIRA



2011-03-31 · TTIPI-TTAPA · 539 zk.

'Maitatu, ikasi, ari... euskalakari!'

Maitatu, ikasi, ari... euskalakari lelopean egin zen duela hamar urte Korrika, eta urte hartako apirilaren 11n, ehun kilometrotik goiti egin zituen euskararen aldeko lasterketa handienaren lekukoak eskualdean. Artesiagako lepotik Iruritara sartu, eta Baztanen barna ibili ondotik, Bertizarana aldera jo zuen, handik Malerreka eta Bortzirieta, eta gero Sarara eta Senperera. Aurten ez dugu halako irudirik ikusi, pandemiaren eraginez, AEK-k ez egitea erabaki baitzuen. Baina horren faltan, Euskal Herriko hainbat herritan *Bultza Euskara* ekimena egin zuten martxoaren 28an, tartean Elizondon. Nahi duenak ekarpena ere egin dezake www.aek.eus atarian.



erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Izaskun Rekarte, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usoa Vicente
Berriemakalariak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maider Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Pierre Bastres, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdioko Akelarre elkarte
2021eko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerreka 40€
Leitza 30€
Hego Euskal Herria 48€
Ipar Euskal Herria, Europa 94€
Amerika eta Australia 140€



KOLABORAZIOAK

MIREN RUBIO ITURRIA

Ibuprofenoa, made in china

Botikaren bat nahi badugu, Txinara eta Indiara jo behar dugu nahi eta nahi ez: bi herrialde horietan ekoizten dira Europako eta AEBko botiken printzipio aktiboen %80. Horrek erran nahi du gure herriko botikan erosten dugun zintzurreko minerako antibiotikoa, etxeko txikiekin mirakuluak egiten dituen Dalsy-a, edota bihotzeko gaitzerako egunero hartu beharreko aspirina *made in China* edo *India* direla.

Ondorioa larria da. Hain beharrezkoak ditugun botikak, hau da, gure osasunaren baldintzatzaile garrantzitsu bat ez dagoelako gure esku. Bertze modu batean erranez gero: sekulako morrontza dugu.

Pandemiak hori ere utzi digu agerian. Europako gobernuak aski urduri ibili dira azken urtean, ez ote zen –txertoaz gaindi– botika eskasirik egonen, eta jada hasi dira erraten botikak hemen ekoizti behar direla (Europar, ulertu bedi). Harrigarria da: gure osasuna merkatu arauen menpe utzi duten horiek orain Europak ibuprofeno-burujabe izan behar duela diote. Covid-19aren sukarraldia ote...

Ez da hain sinplea, ordea. Txinak munduaren botikaria bihurtu nahi du. Hala adierazi du bertako gobernuak 2025eko herrialdearentzako lehentasun estrategikoen txostenean: botiken printzipio aktiboen ekoizle nagusia

«BOTIKEN PRINTZIOPIO AKTIBOEN %80 TXINAN ETA INDIAN EKOIZTEN DIRA»

izateko pausoak emanen dituena iragarri du Txinak, egun duen merkatuaren %40ko langa aise gaituz. Beraz, bertzelako joko-arauak ezarri ezean, urteetako pribatizazio irauli eta publifikazioaren alde egin gabe, aski

zaila izanen da Txinari balazta paratzea.

Urrutiko kontuak dirudite, baina ez dira: egunero-egunero ahoratzen ditugun pilulez ari gara solasean, gure min eta osasun beharrez. Eta nik, adibidez, ez nuke nire hileroko mina Indiaren esku utzi nahi, paracetamola noiz eta zein preziotan ailegatuko esperoan –India da munduko paracetamolaren aktiboaren ekoizle nagusia–. Horregatik, harrirituta ere, sukarrak jota diren horiei tentuz adituko diet, osasunaren alor guztiak publifikatzearen alde badaude. Ez zait eta bertze biderik bururatzen gure etxeko botikina gure etxeko uztarekin bete nahi badugu. Gure osasuna, gure esku gelditu dadila.



MIKEL TABERNA IRAZOKI KAPI

Bonba tranpak errepidean

Kantari poeta beratarrak aski garbi erran zigun orain dela urte batzuk: *Errepideak ez ditut maitate*. Nik ere ez, batere. Arrisku handiko makinak ibiltzen baitira hor barna nolana: min egiten ahal duten armak. Batzuk arinak eta bertze batzuk ongi pisuak; zenbat eta handiagoak izan, orduan eta kalte handiagoa egiteko kapaz direnak. Badugu horren berri N-121 A eta B baliatzen dugunok. Halakoekin, norbaitek edo zerbaitek huts eginez gero, ez da misterio oinazea parrastaka hedatzea.

Gutako bakoitzak ere parte hartzen du karrika dantza makabro horretan. Zu eta ni bezalakoekin eskuek gidatzen dute bolantea, eta badakigu ez garela denak igualak eta ez garela beti berdinean egoten. Egun guztiak ere diferente dira: ateri dagoen edo elurra jori-jori ari duen, edo euria jautsi ahala, edo kazkabarra, edo lainoak itsutzen gaituen, ez da gauza bera izaten.

Gure gain dago kontu handixeagoz edo ttikixeagoz zirkulaztea geure zaldi-behor motordunekin, karretera guzietan baitituzte toki gaiztoak, errebueltak, zitalak, gune beltzak, gerra zelaietako mina lehergarriak balira bezala, non hagitz erne ibili behar duzun ezbeharrak ez izateko. Baina, horietaz gainera, Iruñea eta Behobia edo Dantxarinea lotzen dituenak

«HAMAZAZPI URTE PASATU DIRA ETA BERDIN SEGITZEN DUGU»

baditu bi bonba tranpa bederen: Belateko tunelak.

Herrietako alkateak eta Oronoz-Mugairiko suhiltzaileak ikusi ditugu aitzin horretan prentsako argazki batean, pankarta bat eskue-tan: *Belate – Arrisku handi-*

koa – Segurtasuna orain!

Aspaldi abisatu zioten Nafarroako Gobernuari tunel horiek ez dituztela segurtasun baldintzak betetzen. Haien barrenean zaudela, suak hartzen badu automobil edo kamioiren bat, inork ez dizu bizirik aterako zarela ziurtatzen. Hamabortz urteko epea eman zieten gure agintari ttattardunei hori konpontzeko behar diren neurriak hartzeko. Gure biziak salbatzeko esperantza emanen ligukeen txerto moduko bat paratzeko tuneletan. Hamazazpi urte pasatu dira (kolore bateko eta bertzeko bortz gobernu agintean), eta kaka zaharra. Berdin segitzen dugu.

Estatistikek erranen digute zer posibilitate dagoen inork nahi ez genukeena gertatzeko. Baina deus egiten ez duten bitartean, zuk eta nik segituko dugu tunela gurutzatzen kezkatu, pentsamendu ilunak burutik uxatzen, sartu bezain agudo ateratzeko zenbat falta dugun kontatzen, eta pentsatzen agian ere ez zaigula tokatuko, gure izenak ez direla biharamuneko kronika beltzean agertuko.

11 GALDERA LABUR

OINATZ MARIEZKURENA LEITZAKO MUSIKARI GAZTEA

«Kontzertuetan gure %100 ematen dugu eta hori antzematen da»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Musika pasio duen 24 urteko leitzar gaztea.

Nondik datorkizu musikarekiko zaletasuna?

Musika etxean txikitatik ikusi dudana gauza denez, ia nahigabe ni ere bide beretik joan naiz.

Zein musika-tresna jotzen duzu?

Umetatik bateria izan nuen begiz joa eta bederatzirtekin hori ikasten hasi nintzen, gaur egunera arte.

Noiz eta nola hasi zen Katez taldea?

Lagunarteko amets batetik sortu zen taldea. Betidanik esaten genuen egunen batean talde bat sortuko genuela eta azkenean, 2012an elkartu eta kantuen bertsoak jotzen hasi

ginen. Geroztik, ez gara musika sortzetik gelditu.

Nortzuk osatzen duzue taldea?

Sei partaidek osatzen dugu taldea, denak herrikoak eta lagunak. Mikel eta Manex gitar-jotzaileak, Unai eta Markel abeslariak, Julen baxu-jotzailea eta ni, Oinatz bateria.

Zein musika estilo jotzen duzue?

Metalcore estiloa da gurea. Unai gure musikari gogortasuna ematen dio eta Markelek goxotasuna.

2016an Gaztea Maketa lehiaketa irabazi zenuten. Beste saririk lortu duzue?

Hori izan zen gure sari poto-loena, baina, Iruñerriko eta Gazte Danbadako txapelketetan ere irabazle izan ginin.

'Argiz iluntzen' zuen azken lana da...



Argiz iluntzen gogo handiz sortutako diskoa da. Gauza berriak sartzen saiatu gara eta ilusio handiz konposatu eta grabatu dugu.

Zer da taula gainean gehien gustatzen zaizuna?

Taula gainean sortzen dugun giro ona da gehien gustatzen zaidana. Kontzertu guztietan %100 ematea da gure helburua, eta hori gure artean sortzen den giroan antzematen da. Taula gainean gaudenean kanpoko mundua ahaztu,

musikan zentratu eta ongi pasatzen saiatzen gara.

Eta gutxien?

Kontzertu aurretik izaten diren itxaronaldi luzeak...

Zein helburu dituzue?

Pixkanaka goraka joatea da gure helburua eta, ahal den neurrian, gure musika eta estiloa Euskal Herri mailan sustatu eta hedatu nahiko genuke. Bestalde, jendeari betiko musikatik haratago gehiago ere badagoela ohartarazi eta erakutsi nahi diogu.

Bilduma berria



70. urteurrena

urteurrena dela eta, erosketa bakoitzeko opariak banatuko ditugu

1951tik

Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak toailak

Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Aspacetik eskertza

DAVID ERICE VIDAURRE | NAFARROAKO ASPACEKO LEHENDAKARIA

Joan den martxoaren 27an, Berako Maddi etxebizitza funtzionalean bizi den pertsona bat mendian buelta bat ematera irten zen, desorientatu zen eta gaua egin zitzaion. Egoitzara itzultzen ez zela egiaztatu ondoren, 112ra deitu genuen, eta bilaketa lanei ekin zitzaion, bere erreskatea lortu arte. Nekatuta eta gosetuta zegoen, baina osasun egoera ezin hobean.

Lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu erreskate honetan parte hartu zuten hainbat taldetako pertsonen egindako lanagatik. Uneoro, egoera berezi honetan behar zen maitasun eta ulergarritasuna erakusteagatik.

Aspacetik egin genuen deia jaso eta koordinatu zuen 112a; Berako Suhiltzaile Boluntarioei, Nafarroako Suhiltzaileei, Guardia Zibilarri, Foruzaingoari, Lesakako Osasun Etxeari eta modu altruistan bilatzen aritu ziren pertsona anonimo horiei guztiei.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu Aspaceko langile direnei, bilaketa iraun zuen bitartean laguntza eskaini dutenei. Eta, bereziki, Berako taldeari, Itziar buru duela.

Eskerrik asko Bortzirietako herritarrei gure erakundeak beharrak dituen aldiror hor daudelako. Eskerrik asko.

Auzo lotsa 3: Beheraguneak

XANTI BEGIRISTAIN MADOTZ

Iruñeko Gazteluko plazan, kalkulatzeko, 1980ko hamarraldiaren inguruan, egin zituztela lehenengo beheraguneak espaloietan, lehentxeago edo geroxeago izan daiteke, baina, betiere, garai hartantxe. Ordura arte, uste dut ez zegoela deus ere egina, alegia, ez zegoela ezer ere egokituta, gurpil aulkian zebiltzan pertsonak hobeki eta errazago mugitzeko.

Halako batean, nonbait, udaleko norbaiti, bururatu zitzaion komeni zela zebra-bideetan beheraguneak egitea, pertsona batzuei bereziki, beren ibilbideak erraztu eta samurtzeko. Gogoratzen dut, une hura arte, han ibili behar izaten nuela bilatzen, ea non ote zegoen garajeren bat edota espaloi hautsi eta deformaturen bat, handik barna igo edo jaitsi ahal izateko gurpil aulkian, baina leku guztietan, ordea, ez zen batere erraz gertatzen halakorik aurkitzea.

Hala eta guztiz ere, egindako lehen-dabiziko beheragune haiek oso-oso gaizki gelditu ziren, ez dakit alkatearen interes faltarengatik ala eskarmentu ezarengatik izan ote zen, baina kontua da, burututako hiriko lehenengo beheragune haiek, arrunt piko eta motzak geratu zirela, eta, horren ondorioz, oso zaila zen haietan barrena igotzea eta jaitea, hainbesteko zen, non jaisterakoan, arrisku handia baitzegoen muturrez aurrera joateko lurreraino. Baina, bueno, halarik ere, eta, batez ere egiari zor, esan beharra dago, hobe zela horrela egotea lehen zeuden moduan baino. Handik urte batzuetara, hasiko zen Iruñeko Udala, azkenik, espaloietako beheraguneak ongi egiten, hau da, parametro guztiak ongi beteta; bazen garaia!

Baina nire harridurarako, hara zer entzun edo irakurri nion pertsona heldu bati, handik gutxira, lan haien gainean, alegia: «Arraioa! Azken batean, gurpil aulkian dabilzan pertsonak lau katu triste baino ez izanik, marka da gero, udalak, obra honetan, denon dirutik, barra-barra honela alferrik gastatu behar izatea! Penagarria! Ez ote dute beste lehentasun hobeagorik aurkitu diru hori erabiltzeko? Gaizki goaz, oso gaizki ere, alajainkoa!».

Orain, berrogei urteren buruan, ez dut uste pertsona hark esanen lukeenik gauza bera, are gehiago, baliteke, hurrengo urteetan, berak ere etekina atera izana beheragune haiei, eta baita,

BOTA BERTSOA

ONINTZA

AGIRRE

ZUGARRAMURDIKO

BERTSOLARIA



Indar iturri behar

Doinua: Aditu laguna itsasoak

*Kultura urrun den garai huntan
dugu beharrenezkoa
itotzearen dauden izakien
arnasa, urpekoa
distanta, hotz baina gogoz hartu
sendagai hurbilekoa
musika ez ote da denentzat
beharrezko den txertoa?*

*Gure arteko hari gorri hau
oino hor da senda, trebe
behatz artekin arin amiltzen
azkar hartzen du botere
onar dezagun ba traba eta
in guk gerorri mesede
ez dezagun utz kantatzeari
musukopetik bada ere.*



ANA GALAR ARIZTEGI

geroago, egingen ziren gainerako guztiei ere, bastoia, makuluak edota gurpil aulkia erabili behar izan dituelako. Badaezpada ere, hobe izanen da ez esatea «ur honetatik ez dut edanen», eta, «apez hori ez da nire aita».

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Komun edo komunean?

Erdarazko (es) 'en común' / (fr) 'en commun' lokuzioak euskaratzeko ez da <komunean + izan, jarri, hartu...> egitura erabiltzen. Hortxe ditugu <komun + izan> egitura eta *amankomunean* adizlaguna.

Hona hemen adibide batzuk:

*Zer dute komunean Eguzkiaren argiak, irratiak eta telebistak? < Zer dute komun/amankomunean Eguzkiaren argiak, irratiak eta telebistak?

*Zer ezaugarri dugu komunean bizidun guztiok? > Zein da bizidun guztion ezaugarri komuna/amankomuna?

Testuinguruaren arabera, bertzela ere adieraz daiteke:

*Komunean egiten dugu bizitza > Elkarrekin egiten dugu bizitza.

*Komunean dugun gela > Elkarrekin dugun gela.

Hieroglifikoak

Zein da ikasleen egunik gustukoena?



+

ir +



Zein da zuzena?

'Agurtzen naiz' ala 'Agurtzen zaitut'?

Agurtzarekin Du erabili behar da, hau da, 'nor-nork' sailekoa izan behar du. Horregatik, desegokiak dira esaldi hauek:

*Adeitasunez, agurtzen naiz > Adeitasunez, agurtzen zaitut/zaituztet.


*Polemika hau amaitzeko asmoz, agurtzen naiz > Polemika hau amaitzeko asmoz, agur.

*Azkar-azkar agurtu nintzen lagunengandik > Azkar-azkar agurtu nituen lagunak.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

«Frantziak mugak itxi dituenez migratzaileekin arazoa sortu da»

JOXEAN ORTEGA URRUTIA IRUNGO HARRERA SAREKO KIDEA

Gipuzkoaren eta Lapurdiren arteko muga pasatu eta Frantziara joan nahi duten migratzaileei laguntzen die Irungo Harrera Sareak. Iaz 2.000 lagun artatu zituen eta aurten zenbaitetan «gainezka» ibili dira

G. PIKABEA | IGANTZI

Irungo San Juan Plaza dute bilgune, udaletxe parean, aire zabalean paratzen duten mahai, aulki eta pankartarekin. Irungo Harrera Sareko kideek hantxe egiten diete harrera Afrikatik Espainiara pateran eta handik Irunera autobusean eta trenean ailegatzen diren ehunka migratzailei. Helburu argiarekin egiten dute bidea: Gipuzkoaren eta Lapurdiren arteko muga pasatu eta Frantzia dute amets. Hala, «muga pasatu nahian afrikar aunitz Irunera ailegatzen hasi zirela ikusita» duela hiru bat urte sortu zuten harrera taldea. Joxean Ortega taldeko boluntarioaren hitzetan, Irungo Laka-xita gaztetxean egin zituzten hasierako pausoak, «migratzaileei lotarako tokia, jatekoa, arropa eta lege-aholkularitza emanez». Irundarra da sortzez, baina Igantzin bizi da, eta duela bi urte eta erdi bat egin zuen taldearekin, «hagitz garbi nuelako lagundu nahi nuelan». Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko pasabideak itxita, Irunen migratzaile kopuru handiak pilatu direla aitortu du.

Nolako laguntza ematen die Irungo Harrera Sareak migratzaileei? Egutero San Juan Plazan paratzen dugun mahaian Madrildik edo Bilbotik etortzen diren migratzaileei harrera egiten diegu, nondik nora jo dezaketen azalduz. Gaez ere lan bera egiten dugu, eta geltokira joan eta gaua pasatzera Gurutze

Gorriaren aterpetxerak laguntzen diegu. Behar badute arropa ere ematen diegu eta komunikazio taldea ere badugu. Nire kasuan, muga itxita dagoenetik ezin dut joan, eta bertzela ere ezin izaten dut egutero joan. Baina udan bi astez gau eta egun egoten naiz. Horrez gain, Espainian asiloa eskatzen dutenek, paperak bete bitartean, aldi baterako aterpea behar izaten dutenez, etxeko atea irekitzen ditut. Ez dira aunitz izaten; hiru urtez bi hartu ditut etxean. Legez estatuak adinez nagusiak ez diren guztiei onartu behar die laguntza eta horretarako proba bat egiten diete. Baina proba horrek hiru urterko tartea du, 16 urte izanda 19 dituela erran dezakete eta zaila da eskubideak onartzea.

Zein dira Irunera ailegatzen direnen ezaugarriak?

Batez ere, Mali, Ginea edo Senegalgoak dira, frankofonoak, eta Frantziara joan nahi dute. Gehienak gizonezko gazteak dira. 15 urtekoak ikusi ditut, eta zaharrenek 25-26 urte dituzte. Guttiago badira ere, emakumezkoak eta seme-alabekin datozen amak ere ailegatzen dira. Betiere honat ailegatzea lortzen dutenez ari

«MIGRATZAILEEN HISTORIAK HAGITZ GOGORRAK DIRA»

gara, aunitz baitira bidean gelditzen direnak. Libian eta Marokon aunitz hiltzen dira edo hiltzen dituzte.

Euskal Herrirako bidea nola egiten dute?

Gero eta zailtasun gehiago dituzte. Lehen Ceuta eta Melillara ailegatzen ziren, baina Maroko tarteko orain ez da segurua eta pateran Almerira edo Kanarietara ailegatzen dira. Denak fitxatu eta egoitza batera bideratzen dituzte, gero sorterrira bueltatzeko asmoz. Migratzaileek, ordea, garbi dute zer nahi duten eta egoitza utzi eta ia gehienek Frantziarako bidea hartzen dute. Gehienetan autobusez eta batzuetan trenez ateratzen dira handik eta lehenbizi Madrilerara edo Bilbora eta gero Irunera etortzen dira. Herritik atera eta bi bat urteko bidaia egiten dute honat ailegatzeko.

Bidaia garestia da?

Estatu espainiarrean autobusez bidaiatzea ez da garestia baina Afrikatik ateratzeko egiten duten paterako bidaiak 3.000-5.000 euro artean balio ditu. Aunitzek euren pasaportea entregatuz ordaintzen dute, gero mafiek faltsifikatzeko erabiltzen dituztenak. Baina

«HARRAPATZEN BADITUZTE POLIZIAK ZUBIAN UZTEN DITU»

emakume aunitzi prostituzioa bertze aukerarik ez zaie gelditzen. Aunitz sei-bederatzi hila-beteko haurrekin etortzen dira, bidean sortutako haurrekin.

Afrikatik atera aitzinetik makurrago pasatzen dute?

Bai, dudarik gabe. Hura infernua da, heriotza. Etxean hartu genuen bigarren migratzaileak Gurugu mendian egindako egonaldiaz solas egin zigun. Han poliziak sarekadak egiten ditu, migratzaileak hiltzeko edo jipoitzeko. Europak migrazio mugimenduak kontrolatzeko Marokori ordaintzen die, baita Turkiari ere, baina hala ere pasatzen dira. Lanera heldu den jende zintzoa da, aunitz unibertsiteko ikasketekin.

Azken hilabeteotan migratzaile kopurua aunitz hazi da Irunen...

Bai, terrorismoaren gezur horren aitzakiarekin, mugak itxita arazoak sortu dira. Bigarren Mundu Gerran ere ez zen halakorik gertatu eta zergatik orain? Jendarme guztiak, kontrolatzeko medio guztiak, Irunen kokatzeko. Irun eta Hendaia arteko bidean orain ez da inor pasatzen, edo hobeki erranda, ez da beltza den inor pasatzen. Horregatik pilatu dira. Duela zenbait aste Irungo Harrera Sareak, Gurutze Gorriak eta udalek gainezka egin zuten, eta Hondarribiko frontoia egokitu behar izan zuten. Baina aterpe hori utzi eta Frantziarako bidearekin segitzen dute. Bidasoa ibaitik ere atera zuten bat, itotzear. Ez dute esten eta behin eta berriz saiatzen dira, muga pasatu arte. Beti lortzen dute. Nola ez dira ba saiatuko hilabetetako bidaian sufritu duten guztia gaintu ondok? Baiona dute hurrengo helmuga, harrera egiteko aterpe bat dagoelako eta Frantzia iparraldera joateko laguntzen diete. **Egunean bana bertze zenbat ailegatzen dira Irunera?**

Egunaren arabera da; batzuetan 40 lagun, bertzeetan 20, hiru... Bana bertze egunean 20 bat lagun izaten dira.

Poliziak muga zeharkatzen harrapatuz gero zer gertatzen zaie?



Irungo Harrera Sarea sortu eta guttira sartu zen Joxean Ortega igantziarra taldean, «hagitz garbi nuelako lagundu nahi nuela».

Bueltan ekartzen dituzte. Hendaian edo Bordelen, berdin du non, baina harrapatuz gero, kotxe kamuflatueta Irunera ekartzen dituzte, Ficoba ondoko zubian utzi eta martxa egiten dute. Legez Espainiako Poliziaren esku utzi beharko lituzkete, baina ez zaie interesatzen. Azken hilabeteetan kontrolak zorroztu dituztenetik geltokietan, zuhaitz artean, nonahi gordetzen dira migra-tzaileak autobusetik jaitsi orduko harrapatzeko.

Nolako jarrera du poliziaz?

Arazista. Kontroletan paperak ez dizkiete edozeini eskatzen; autobusak geldiaraztean ez diete jaisteko edozeini erraten... Beltzak dituzte begiz joak. Ez diegu jarrera bortitzik ikusi,

baina krudela bai. Berdin jokatzen dute gazteekin edo bi urteko haurarekin doan amarekin. Euren artean denetarik ikusi dugu, eta batzuetan pasatzen utzi diete, eta gauza bera autobus gidarien artean.

Kasu gogorrik tokatu zaizu?

Niri ez, baina izaten dira. Duela hilabete batzuk buruko arazoak zituen mutiko bat ailegatu zen. Egonkortu zen arte, 24 orduko zaintzak egin behar izan zizkieten. Kontatzen dituzten historiak hagitz gogorrik dira. Amets Arzallusek *Miñan* liburuan kontatzen duena ez da kasu isolatua. Guztiek antzeko historia dute, gogorra, baina aldi berean hagitz esker onekoak dira. Guk eman beharko genituzke eskerrak gure

laguntza onartzeagatik, aspaldiko zorra kitatzen ari gara.

Eta etxean hartu dituzunekin?

Lehenbiziko aldian, 15 urteko Amadu etorri zen, ikaratua eta desegina. Gogoz kontra, etxetik bidali zuten, pateran. Las-tozko lau txabola zeuden eta basamortua zirudien herri batetik etorri zen. Egunero ura etxera eramateko 40 kilometro egiten zituen, eskolan ibili gabea zen eta ez zekien leitzen eta idazten. Lehenbiziko egunean, ohatze gainean egin zuen lo, ez zekielako irekitzen ahal zela eta tapatzeko maindireak bazituela eta kutxazain batetik dirua ateratzen ikusita, begizabalik gelditu zen. Han gizonezkoek orduak eta orduak ematen dituzte solasean, ego-

nean, eta harrituta gelditu zen hemen horrelakorik ikusi ez zuelako. Hagitz gutti jaten zuen, behar dutena bakarrik jaten duten seinale. Ez dira gu bezain bekaiztiak. Orain, Frantzian bizi da, ikasi du eta lanean ari da baina adin ttikikoa izateari utzi dionez, jaioterrira bidal dezakete.

Zein mezu luzatuko zenuke?

Oro har, norbere burua eta hurbilekoena interesatzen zaigu, eta bertzelakoa da urruti daudenekin dugun jarrera. Hala ere, Greziako errefuxiatuen kanpamentuan laguntzen duen jende aunitz eta aunitz dagoe-la ikusi nuen. Laguntzeko, ordea, ez da haraino joan beharrik. Hemen ere bada aukera, eta ez etorkinekin bakarrik.

Herriko plazak hutsik dantzari gabe

Covid-19ak eragin handia izan du eskualdeko euskal dantza taldeen jardunean. Egun eskualdeko taldeen egunerokotasuna nolakoa den jakiteko Lesakako, Senpereko, Doneztebeko eta Leitzako taldeetako arduradunekin izan da TTIPI-TTAPA

IZASKUN REKARTE

«Euskal dantza taldeen egoera, hagitz arraroa eta ezegonkorra da momentu honetan». Hala ere, baiezta digute Amaia Ostolaizek, Lesakako Tantirumairu dantza taldeko dantzariak; Pantxika Telleriak, Senpereko Elirale dantza konpainiaren koreografoak; Oihana San Miguelek, Doneztebeko Erreka dantza taldeko dantzariak, eta Nahia Barriolak, Leitzako Aurrera dantza taldeko dantzariak. 2020ko martxoan dantza taldeen eguneroko jarduna gelditu egin zen eta urtean zehar antolatzen dituzten emanaldiak guztiak bertan behera gelditu dira. Modu honetan, Euskal Herrian, baita gure eskualdean ere, hain maitatuak diren euskal dantza emanaldirik gabe eta dantzari gabe gelditu dira herrietako plazak. Neurri handi batean bederen.

Etiketari jardunean

2020ko martxoaren 14an alarma egoera ezarri zen eta euskal dantza taldeek saio presentzialak eten egin behar izan zituzten, klasetara noiz itzuliko ziren jakin gabe. Hau horrela batzuek teoria landu, klaseak online bidez emateari edota koreografia berriak sortzeari ekin zioten. «Konfinamendua hasi zenean entseguak hilabete batez eten genituen». Konfinamendua medio,

hau izan zen Tantirumairu dantza taldeak hartu zuen erabakia. Hala ere, segidan martxan hasi ziren «egonkortu zenean, 12 urtetik goitiko taldeek online entseatzeko erabakia hartu genuen». Ekain hasieran, konfinamendua bukatu zenean «helduen taldekoak presentzialki entseatzeko hasi ginen, abuztuan eskaini genuen emanaldia prestatzeko».

Herriko bestak gogoan

«Urtero bezala, Leitzako festetako ezpata-dantza entseatzeko hasi ginen» baina Covid-19aren hedapena saihesteko hartutako neurriak jarraituz «ikuslerik gabeko ezpata-dantza izan zen». Dantzarekin «bideo bat grabatu eta herriarrei helarazi genien herriko festetako keinu gisa». Erantzun «polita» izan zutela adierazi du Aurrera taldekoak. Ostolaizek saminez gaineratu du sanferminetarako deus egin ezin izan zutela. Hala ere, ez ziren udako emanaldirik gabe gelditu «zorionez aurtengo martxoan helduen zein haurren taldeak elkartu eta dantza eguna antolatzeke aukera izan dugu». Herriko bestak ospatzeko aukerarik izan ez bazuten ere Erreka taldeak «udan, segurtasun neurri guztiak betez, hainbat asteburutan herriarrei dantza herrikoiak dantzatzeko aukera» eskaini zien. Erantzun-

na «polita» izan zela gaineratu du, herriko plazan «jende aunitz» bildu baitzen.

Irekitzen ausartu direnak

Bada dantza saioak ematen jarraitu duen talderik ere, baina, hauek hainbat erronka eta arau berriri aurre egin behar izan diete: «Dantza saioak eman ahal izateko, saio bakoitzaren aitzinetik, eskuak garbitu, maskara jantzi eta distantzia mantenduz ari gara» gaineratu du Pantxika Telleriak, «egokitu behar izan dugu: egokitu edo deus ez egin». Modu honetan, emanaldiak moldatu dituzte eta sorkuntza lanetan segitu dute. «Hastapenean, pixka bat itoak sentitu ginen taldean, hainbertze muga izatea frustragarria zen». Telleriak aditzera eman duenez euskal dantzek, bertze dantza modalitate batzuk ez bezala, bikote gabe aritzeko aukera zabala dute, «euskal dantzek uste litekeena baino aukera zabala goa eskaintzen dute. Binaka ez ezik, bakarrik ere dantza anitz egin baitaitezke. Gainera, euskal dantzen oinarria pauso zehatz batzuk dira, eta hauek zailtasunik gabe entsea daitezke distantzia mantenduz».

Emanaldiak eskaintzeko zailtasunak

«Frantziako Estatuak ezarritako murriztapenekin ezinez-

koa zaigu emanaldiak bertan eskaintzea, horregatik, orain egiten ari garen *performance* guztiak Hego Euskal Herrian eskaintzen ari gara». Modu honetan azaldu ditu Pantxika Telleriak Frantziako Estatutan kultur taldeek emanaldiak emateko dituzten zailtasunak eta oztopoak.

Egoeraren eboluzioaren araberrako ikasturtea

«Urtarrilean, dantzari txiki zein helduak entseatzeko hasi ginen eta ekain erdialdean emanaldi bat ematea aurreikusitako dugu» dio itzaropentsu Nahia Barriola leitzarrak. Amaia Ostolaizek jakitera eman duenez, Tantirumairu dantza taldeak bere jardunarekin segitu du 2020-2021. ikasturtean «urrian, urtero bezala, talde guztien entseguen normaltasunez hasi ginen, betiere, momentuan ezarrita dauden osasun protokoloak errespetatuz». Oihana San Migel Erreka dantzariak «pixkanaka egoerari buelta ematen» hasi direla adierazi du. Izan ere, «herriko karrikak eta plaza musika eta dantzez betetzeko desiratzen» daude.

Plazetara itzuliko gara

Azkenik, baikor mintzo dira eskualdeko lau dantza taldeetako arduradunak eta Covid-19ak sortu duen larrialdi egoeraren ondotik berriz ere gure herrietako plazak dantzaz eta musikaz alaituak izanen direla adierazi dute. Nahia Barriolak argi du zein izanen den euskal dantzen etorkizuneko bilakaera, «euskal dantza garai bakoitzera egokitu da, eta garai bakoitzak euskal dantzak egokitu ditu. Hortaz, seguru nago oraingo oztopo hau gainditzeko gaitasuna ere izanen duela».

«KONFINAMENDUAN ONLINE ENTSEATU GENUEN»

AMAIA OSTOLAIZ, TANTIRUMAIRU

«IKUSLERIK GABEKO EZPATA-DANTZA IZAN ZEN»

NAHIA BARRIOLA, AURRERA

«HASTAPENEAN ITOAK SENTITU GINEN»

PANTXIKA TELLERIA, ELIRALE

«PANDEMIAK BALDINTZATU GAITU»

OIHANA SAN MIGEL, ERREKA



«Abuztuan eta martxoan dantza emanaldiak egin ahal izan ditugu».

«Urtean zehar sortzen diren ekitaldietan parte hartzen dugu»

Amaia Ostolaizek bere dantzari ibilbidea 17 urterekin hasi zuen Tantirumairu dantza taldean. Ordura arte, «Oiarzungo Haurtzaro dantza taldeko partaide» izan zen. Lesakako Tantirumairu dantza taldea 1980an sortu zen. Orokorrean, «dantzari guztiak bortz urterekin hasten dira». Lesakako dantza taldeko emanaldi nagusia «uztailaren 6an eskaintzen» dutena da, hain zuzen ere San Fermin bezperakoa, eta «dantzari tiki eta helduek urtean zehar entseatutako koreografiak» herritarren aitzinean plazaratzen dituzte. Horietaz gain, urte osoan «herrian eta herritik kanpoko jardueretan ere parte hartzen» dute. Iaz ez zuten egiterik izan eta aurtan ere kolokan dago. Hala ere, herriko dantzarien eguna ospatu zuten martxoaren 20an.



Pantxika Telleria «hastapenetatik taldearen buru» izan da.

«Egokitu behar izan dugu, egokitu edo deus ez egin»

Elirale dantza konpainia «2001eko martxoan sortu zen Donibane Lohizunen». Egun, «bertze hainbat herritan» eskaintzen dituzte klaseak, tartean Senpereko Larraine kultur aretoan. «Urtero emanaldi edo sorkuntza berri bat» plazaratzen dute. Telleriak «dantzas gain, performance oso bat» sortzen dutela gaineratu du; «hitzak, dantza, musika eta antzerkia ere uztartuz» dituzten. Ikuskizunak «batez ere, Euskal Herriko lurraldeetan» taularatzen dituzte. Koreografoaren hitzetan, «dantza konpainiaren oinarria dantza, mugimendua eta arnasa dira. Dantza herrikoa, etiketarik gabea, da konpainia honek eskaintzen duena». 2020an *Fuga* koreografia sortu zuten.



Taldea sortu zenetik «Malerrekako plazetan hamaika aldiz» ibili dira.

«Egoerara egokitzea tokatu zaigu eta horretan jarraituko dugu»

Oihana San Migel «lau urte» zitularik hasi zen Doneztebeko dantza taldean. 16 urte zituenean Erreka dantza taldean hasi zen. Erreka dantza taldea eskualdeko euskal dantza talde gazteena da, 2010ean sortu baitzen eta ordutik, «Malerrekako plazetan hamaika aldiz ibili gara». Iazkoa «urte berezia» izan zen. Zoritxarrez, «urteurrena ospatzeko ekitaldia prestatzen ari zirela» osasun alarma-egoera ailegatu zen. «Urteko emanaldi garrantzitsuena herriko bestetan» eskaintzen dutena izan ohi da. Emanaldi honetan «ikasturtean sortu, ikasi eta entseatutako koreografiak» plazaratzen dituzte. Bertzalde, Eguberrietan ere emanaldi berezia eskaintzen dute.



Herriko festetan «bideo bat grabatu eta herritarrei helarazi genien».

«Une honetan helduen taldean 30 lagunetik gora gaude»

Nahia Barriola 12 urterekin hasi zen Aurrera dantza taldean dantzatzen, hau baita «dantza taldean sartzeko izan beharreko gutxieneko adina». Leitzako dantza taldea 1957an sortu zen. Dantza taldean «adinaren arabera bi talde bereizten dira: alde batetik, dantzari txikia eta bestetik, helduak». Dantzari txikien taldea «12 eta 17 urte bitarteko gazteez osatzen da» eta «hiru taldetan entseatzen dute». Aurten guztira «35 neska eta 10 mutilek» osatzen dute taldea. Beste aldetik, dantzari helduen taldean «une honetan 30 lagunetik gora gaude». Dantza emanaldi garrantzitsuena «herriko festetan» antolatzen dutena da: «Umeen eguneko dantzari txikia, abuztuaren 11n ezpatadantza eta abuztuaren 12ko dantza saioa».



2019ko azaroan Iruñean egin zuten ikasle greban izan ziren eskualdeko ikasle batzuk. UTZITAKOIA

Ikasleak ardatz dituen hezkuntza helburu

Apirilaren 21ean Iruñean, Donostian, Gasteizen eta Bilbon egingen diren mobilizazioetan ikasleek «pandemiak azaleratutako egiturazko arazoei irtenbidea emateko» eskatuko dute

TTIPI-TTAPA

«Nazkatuta gaude ikasturte honetako gestio penagarria ikasleok ordaindu behar izateaz». Hori salatzeke eta «aho batez nahikoa dela errateko» ikasleek ikasgelak hustu eta karrikak hartuko dituzte apirilaren 21ean, hirugarren asteazkenean.

Hezkuntzaren «arazoak agerian»

Ikasturte hau «bereziki zaila» izaten ari da ikasleentzat, lehendik ere sumatzen zituzten «presio jasanezina, ikuspegi kritikorik eza, indibidualismoa eta sorkuntza faltari» pandemiaren ondorioak gehitu baitzaizkio: «osasun larrialdiak hezkuntza sistemak aitzinetik zituen egiturazko arazoak azkartu eta azalerratu ditu».

Ikasleen arabera, egoera honek, bertzeak bertze, «orain arte erabilitako ebaluazio sistemak ez duela balio» erakutsi du: «etxean konfinatuta egon diren ikasleek ez dute azterketak egiteko bertze aukerarik, irakasleak berak hala erabakitzen ez badu behintzat».

Ikasgelak ixtearen «zama» hezkuntza komunitatearengan

«Zama» hori hezkuntza komunitate osoaren, hau da, «guraso, irakasle, zuzendari eta, batez ere, ikasleon gain» gelditu da kasu aunitzetan, «ikastetxeetan ez dela kutsatzerik gertatzen dioten arren ehunka izan baitira itxi beharreko ikasgelak».

Ikasleek ondorioak okerragoak izan zitezkeela uste dute, eta hala izan ez bada, eurek hartutako ardurari eta «hezkuntza komunitatearen elkar zaintzari esker» izan dela nabarmendu nahi izan dute.

Egoera «sostengaezina»

Ikasleria Martxan plataformak «hezkuntza sailak hilabeteak pasa diren honetan deus ez» egin ez izanak «egoera sostengaezin» bilakatu duela eta horri aurre egiteko ikasleak «antolatzea eta borrokatzea» beharrezkoa dela uste du.

Ikasleak «nazkatuta, haserre eta amorratuta» daude eta gelditzea erabaki dute: «egoerak horretara behartu gaitu, mahai gainean kope bat ematera».


Karrikak hartzearekin «hezkuntza agintariei hemen gaur»

dela erakutsi eta ikasleok behar ditugun neurriak hartzeko eskatuko» diete.

Sei eskaera

Guztira sei eskaera dituzte: pandemia egoerari eta ikasleak behar duen arreta jasotzeari begira, ikasgeletako ratioak jaitea; kontrol soziala desgertzea; baliabide guztiak (jangela, garraioa, materiala) eskuragarri eta dohainik izatea; protokolo eraginkorrek sortzea (konfinatutako ikasleek klaseak segitzeko eta ebaluazio alternatiboa izateko); ikasleen hitza aditzea; eta euskaraz ikasteko bitartekoak eskaintzea.

Euskal Herri osoko milaka ikasleren artean eskualdekoak ere geldituko dira. Bertzeak bertze, Cecilia Adinek, Olatz Iturraldek, Lide Igoak, Luken Urtzegik eta Izaro Etxeparek deialdiarekin bat egingen dute, «ikasleak erdigune dituen hezkuntza» aldarrikatzeke.



Ikasleriaren egoera kontuan hartu beharko luketela uste du Iturraldek.

«Hezkuntza indibidualistagoa izatea eragin du pandemiak»

Azterketa garaian konfinatuta egon behar izan zuen Olatz Iturralde Arretxeak (Zozia, 2004). Horren ondorioz, «azterketa bat egiteko aukera ukatu eta notaren %100 azterketa baten menpe utzi zidaten». Osasun egoera aitzakiatzat hartuz, «ikasle batzuk baztertu dituztela» iruditzen zaio Iturralderi. Eta ez da hori pandemiaren aitzinean ikasleek izan duten «bidegabekeria» bakarra: «koronabirusak orain arte nahiko indibidualista zen hezkuntza indibidualistagoa bihurtu du, ikasleria bizitzen ari garen egoera kontuan hartzen ez duten irakasleak daude eta guztiok eraginkortasun berearekin lan egitea nahi dute...».



Ikasleak apirilaren 21eko greban parte hartzera animatu ditu Adinek.

«Oinarrizko eskubideak zapaldu dizkigute»

Ikasleek nerabezaro eta pandemia betean «laguntza beharrezko trabak» izan dituztela uste du Cecilia Adin Urtasunek (Elizondo, 2004): «kontraesan bezala betetako neurriak jarri eta oinarrizko eskubideak zapaldu dizkigute». Ikastetxera joateko garraio zerbitzua «beteta» joan ohi den arren, ikastetxean «aunitzetan pasillora atera edo norbere lekutik mugitzeko aukerarik ez» dute izaten. Horretarako, «polizia lanak eta kontrola» areagotu dituztela iruditzen zaio. «Ikasleen ahotsa isiltzeko» ere baliatu dute: «zuzendaritzak ikasleen borroak eta aldarrikapenak plazaratzeko oztopoak paratu dizkigu».



Ikasleek euren eskubideen alde borrokatu behar dutela uste du Urtzegik.

«Irakasleek ez diete arretarik jarri konfinatutako ikasleei»

«Hezkuntzak pandemiaren aitzinean ikasleontzako beharrak kontuan hartu gabe hartu ditu neurriak». Hala dio Luken Urtxegi Urrak (Igantzi, 2006) eta bere ustez horren ondorioak aunitz eta argiak dira. Bertzeak bertze, konfinatuta egon diren ikasleei «irakasleek ez diete arretarik jarri eta lanak azalpenik eta eredurik gabe egin behar izan dituzte». Ikasleek «gure eskubideen alde borrokatzea» garrantzitsua da bere ustez, eta beraz, apirilaren 21ean Iruñean izanen den manifestaziora joanen da: «gurekin batera ahalik eta jende gehien etor dadin autobusa ere antolatuko dugu».



Ikasleentzat «baldintza hobekak» eskatu ditu Igoak.

«Birusaren ondorioak pairatzen ari gara eta arreta behar dugu»

Batxilergoko bigarren mailan dago Lide Igoa Fontan (Lesaka, 2003). Pandemia tarteko, inoiz baino gehiago sumatu du «presioa eta individualismoa» eta egoerara ohitzea «lan gogorra» izan da berarentzat. Argi du egoera honek ez duela «eragin onik» ekarri eta «hezkuntza sailak hartutako neurriak ez dira lagungarriak». Bere ustez, «musukoa erabiltzea, segurtasun distantzia mantentzea, eskuak garbitzea eta sintomarik izanez gero etxean gelditzea» aski izanen litzateke: «bizi dugun egoeraz eta hartu beharreko neurriez jabetzen gara...». Ikasleak ere «pandemiaren ondorioak jasaten ari direla» eta arreta behar dutela adierazi du.



Ikasleen askatasun eta botereak eza nabarmena da Etxepareren ustez.

«Ikasleontzako hitza ez da kontuan hartzen»

Irakasleentzako «boterearen» aitzinean, ikasleek «erabakitze aukera urria» dutela uste du Izaro Etxepare Elriok (Bera, 2004). Gainera, birusaren ondorioz, muga horiek zorrotz eta «hezkuntza individualista bultzatu eta beharrezkoak diren harremanak kaltetu» dituztela iruditzen zaio. Argi du pandemiaren aitzinean «neurri egokiak hartzea zaila» dela, baina hezkuntzak hartutakoak «eskasak» direla nabarmendu. Bere ustez, egoera honetan, «ikasle konfinatuei ikasketak modu duinean jarraitzeko bitarteko errealak» eskaini beharko litzekete eta ebaluazio irizpideak horretara egokitu «ikasketak gibelatzea eta arazoak pilatzea saihesteko».

«Oihanean ordu aunitz isilik eta geldirik egoten jakin behar da»

ĨNAKI ATXA ARANBURU ARGAZKILARIA

Maiatzaren 27tik aitzinera Berako Labiaga Ikastolaren Altzateko egoitzan Iñaki Atxaren *Basabizitza* ikusgai da larunbatetan eta igandeetan 16:00etatik 20:00etara

IZASKUN REKARTE

«Euskal Herrian, Katalunian, Espainian, Polonian, Finlandian eta AEBetan ateratako argazkiez» osatutako *Basabizitza* erakusketa du esku artean Iñaki Atxa (1981) elizondoarrak.

'Basabizitza' erakusketa

Erakusketa «azken urteetako lanaren emaitza» da eta bi helburu nagusi ditu: alde batetik «egindako lana plazaratzea» eta, bertze aldetik, jendeari ikusaraztea «zein polita eta beharrezkoa den natura bere horretan mantentzea eta, bere horretan mantentzen laguntzea». *Basabizitza* erakusketa «han eta hemen» ateratako argazkiekin osatu du Atxak eta argazkietan agertzen diren animalia guztiak «basanimaliak» direla adierazi du, hau da, «bere eremu naturalean bizi direnak». Proiektua «bakarkako lana» izan da, taldean egitea «ezinezkoa» izanen baitzen. Izan ere, «basanimaliengana hurbiltzea, beraien bizimoduan eraginik sortu gabe zaila da. Gauza aunitz hartu behar dira kontuan: ohiturak, urteko sasoiak, haizearen norabidea...». Elizondoarraren hitzetan «ikussezin bihurtzen ikasi beharra dago eta oihanean ordu aunitz isilik eta geldirik egoten jakin behar da».

Natura ezagutu, natura maitatu

Erakusketaren bidez bidali nahi duen mezua garbia da,



Ibilbide luzea du Iñaki Atxak ikus-entzun arloan.



'Basabizitza' erakusketako argazkiak egiten.

«erakusketarekin natura eka- rri nahi dut ikuslearen begi bistara». Modu honetan, ikusleak «natura zeinen zoragarria den» ikusiko du, «natura maitatuko du eta maitatzen duen une beretik babestu egingen du».

Mendi short irabazlea

Bertzalde, hau ez da Atxak bere lana mundura zabaltzen duen lehen aldia. 2018an *Mendi short saria* eskuratu zuen *Hartz eta otsoekin lotan* lanarekin. Lehenbiziko egunetan «sinetsi ezinik» ibili zen, ondotik, Bilbora saria jasotzera joan zen. Bertan, «jendez lepo zegoen antzoki erraldoi horretako ohol-tza gainera joatea ez zen erreza izan» aitortu du. Hala ere, «nazioarte mailako epaimahai batek zure lana saritzea atsegingarria» dela onartu du baztandarrak.

Data zehatzik gabe, baina, berriz bidaiatzeko gogoz

Berriz ere bidaiatu eta «natura bere horretan» biltzeko asmoa du. «Jaz nintzen joatekoa, baina pandemia medio, aurtengo irailera luzatzea derrigortu ninduen», aipatu digu. Hala ere, «aurten ere harat ailegatzeko modurik egonen ote den» zalantza egiten du Atxak. Data zehatza ez badaki ere, «ordainduta dagoenez» bidaiak lehenago edo beranduago egingen duela ziurtatu du. Izan ere, «ezin da hitzez adierazi» basanimalei argazkiak ateratzea zer den. «Bizi beharreko esperientzia da. Taiga oihanaren erdi erdian galduta, gizakiaren arrastorik gabe, hartz eta otsoez inguratutako aste bete egotea... Zoragarria izan zen».

Berako erakusketa

Azkenik, *Basabizitza* erakusketa Labiaga Ikastolan paratze-ko aukera eskaini zioten, eta berak «ilusio handiz» onartu du. Gainera, argazkiez gain bideo bat proiektatzeko asmoa du Atxak. Bideoan «gure eskualdeko oihanetako biztanleei grabatutako irudiak agertuko dira».

Beran eta Arantzan ibiliko da Zapla! bertso plaza

'Bidasoan gora' saioa izanen dute apirilaren 24an Berako Kultur Etxean eta bertso bazkaria Aterpen maiatzaren 15ean

TTIPI-TTAPA

Zapla! egitasmoa martxan jarri du Nafarroako Bertsozale Elkarteak. Bertso plaza honek zazpi saio izanen ditu Nafarroako zazpi herritan apirilaren 23tik maiatzaren 15era arte.

Kultura segurua dela adierazi du elkarteak, eta pandemiak astindutako bertsolari-tzaren sektorea berpiztea du helburu egitasmo berri honek. Nafarroako zazpi herritan ibiliko da bertso zirkuitua, haien artean Beran eta Arantzan, bertako udalen lagun-



Zazpi herritan ibili da bertso zirkuitua.

tzarekin antolatuta. Kultura eta bertsolari-tza erantzuki-zunez antola daitezkeela frogatu nahi du elkarteak. Honekin batera, bertso txapelketa batek exijitzen duen egitura zurrunik aldendu nahi dute, bertzelako saio mota, gai eta ariketa molde esperimentalekin jokatu.

Apirilaren 24an Bidasoan gora (Eneko Aizpurua, 2020) liburuan oinarritutako bertso saioa egingen dute Berako Kultur Etxean, 18:30ean hasita, Alazne Untxalo, Ander Fuentes *Itturri*, Ekhiñe Zapiain eta Xabier Terreros bertsolariekin. Arantzako Aterpean, berriz, **maiatzaren 15ean** bertso bazkaria egingen dute Eneko Lazkoz eta Julen Zelaieta bertsolarien eskutik, 14:00etan. Sarrerak *bertsosarrerak.eus* web orrian daude salgai martxoaren 29az geroztik. 7 eta 8 euro bitarteko prezioa izanen dute saioek eta 30 eurokoa bertso bazkariak.

'Arkanbele kantak' liburua argitaratu du Mikel Tabernak

Mendearen Ilunabarrean bere lehenbiziko poema liburua argitaratu zuenetik 25 urtera, *Arkanbele kantak* atera du Mikel Tabernak (Alkaiaga, 1957) Susa argitaletxearekin. Hainbat gairen inguruan eginiko poemak bildu ditu Tabernak, «nork berea baitu, arkanbele kanta». Liburuak «geografia fisiko eta bital baten bidaian sartuko gaitu, Bidasoaldera bezala Iruñeko atzerrira eramanean gaituena, haurtzarora eta 36ko gerrara, solastatzeko eta isiltzeko modu batera, gaztaroko lagunartera eta aurreneko sexu-jolasetara, gure baitako izaera gordera, bizitza gozatzeko modu batera... Desagertzeko arriskuan omen dago arkanbelea, baina zaila da sinestea, bizitza zelan zuketzen duen ikusita, haren kantua adituta».



Bizikleten salmenta eta konponketa.
GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com













Uraren Mundu Eguna herrian ospatu du NILSAk

Hezkuntza-programaren baitan martxoan Nafarroa osoko ikastetxetako 113 talderekin lan egin du enpresa publikoak

TTIPI-TTAPA

Uraren Mundu Eguna izan zen martxoaren 22a eta NILSAk, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesioeko Departamentuari atxikitako enpresa publikoak, bere hezkuntza-programaren bidez ospatu zuen. Goiz osoan, Naiara Gorostidi eta Odei Garcia de Acilu monitoreek Toki Ona institutuko ia ehun gazte gidatu zituzten herriko araztegiaren eta Bidasoa ibaiaren ertzetan.

Ikasleek ikasi ahal izan zuten, uraren zikloak, ura hartzen denetik gizakiek erabiltzen duten arte eta naturara itzultzen den arte, pertsona bakoitzeko 34,77 kiloko karbono-aztarna sortzen du urtean, autoz 200 kilometroko bidaia baten baliokidea dena.

Jarduerak euskara hutsean egin zituzten, hezkuntza-programaren eskaintza hirueleduna baita (gaztelania, euskara, ingelesa). Instalazioetan hon-



Toki Onako ikasleak NILSAko monitoreen azalpenei adi araztegiaren. UTZITAKOIA


dakin-ura tratatzeko prozesua ezagutu zuten, ondotik ibaiaren eta ibaiertzen egoera ekologikoa egiaztatzeko. Kontzientziazio-programa horren baitan, edateko uraren zikloa eta ondotik hondakinena ezagutarazteaz gain, baliabide hori aurrezteko eta ingurumena iraunarazteko jardunbide egokietan heztea ere lortu nahi izan dute, bere-

ziki ibaietako ekosistemak garbitzeko eta animalien bizitza errespetatzeko.

Martxoan, hezkuntza-programako 113 talde programatuak zituzten Nafarroa osoan eta dagoeneko eginak dituzte Sunbillan, Elizondon, Azagran, Lekunberrin, Tuteran, Ribafordan, Cintruenigon, Lizarran eta Beran.



MAYI ETA MONIKA PIKABEA



IHINTZA UDAETA

M8ko argazki lehiaketako sariak Toki Onan

Emakumearen Eguneko ekitaldien artean argazki lehiaketa ere antolatuta zuten Toki Ona Institutuan. Batxilergoko ikasleen artean, Mayi eta Monika Pikabea Perinne lesakarren *Gure eskuetan* argazkia izan zen saritua eta DBHkoen artean, Ihintza Udaeta Zubietara beratarrak irabazi zuen, *Chica Sobresalto* abeslaria kontzertuan argazkiarekin.

F. LANCHAS

 Biltegia: 948 630 102

 Sakelakoa: 633 480 563

 Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

Alberto RETEGI

 abokatu(a)

 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

LABE ZAR

 Astelehenerdik ortziralera: 07:15etik aitzinera

 Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera

 948 631 076 • BERA

F. LANCHAS

 Akutxiladorea eta bernizatzailea

 Parket eta parket flotatzailea jartzea

 Mota guztietako zolak

 Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Ainhoa Altzuguren Mitxelena

 Abokatutza orokorrean · Herentziak

 Alokairuak · Lan aferak

 Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deitu eta solastatuko gara.

 BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaaltzuguren@gmail.com

Aurten ere ez da herriko bestak ospatzerik izanen

laz bezala, udako programazio zabal batek ordezkatuko ditu eta apirilaren 12an egingen dute hori zehazten hasteko bilera

TTIPI-TTAPA

Udal ordezkariak kultur eragileekin eta herritarrekin bildu ziren martxoaren 24an, egungo egoera aztertzeko. Oraindik ohiko bestak ezin direla egin ondorioztatu zuten, ezin direlako segurtasun neurriak bete (distantzia mantentzea, jende pilaketak saihestea,...). Hori dela-eta, joan den urtean bezala uztailean eta abuztuan udako programazio bat antolatzea erabaki zuten.

Programazio hau ahalik eta parte-hartzaileena eta osatue-
na izateko kultur batzordearen



Bigarren urtez, ez da herriko bestarik.

bilera batera dei egingen diete kultur eragile eta herritar guztiei, hauek ekitaldien ekarpen zehatzak egiteko. Bilera apirilaren 12an, astelehenean, 18:30ean egingen dute Herriko Etxeko batzar-aretoan.

Rüdiger-en eskutik kontzertua izanen da apirilaren 18an

Before it's vanished kontzertua eskainiko du Rüdiger-ek apirilaren 18an, igandean 18:00etan kultur etxean. Sarrerak aitzinetik eskura daitezke (6 euro) Agara prentsan. Felix Buff bateria-jotzailearen proiektua da Rüdiger eta Joseba Irazoki izanen du ondoan.

Euskal Herriko armarriri buruzko solasaldia

Euskal Herriko armarriri: aurrekari historikoak eta gaur egungo egoera solasaldia emanen du Andoni Esparzak apirilaren 15ean, ortzegunean 19:00etan kultur etxean. Berako Kultur Batzordeak eta udalak antolatutako solasaldia gaztelaniaz izanen da.



UTIZTAKOIA

Pettik kontzertu bikaina kultur etxean

Manipulazio estrategiak diskaren aurkezpen kontzertua eman zuten Pettik martxoaren 20an kultur etxean. Etxeko Uzta (Joseba Irazoki, Iñigo Telletxea eta Igor Telletxea) taldea, Estitxu Pinatxo abeslaria eta Juantxo Zeberio eta Alejandro Saul musikariak lagun, aretoa bete zuten entzuleak gustura utzi zituen.

Etxepareren album ilustratuak erakusketa ikusgai liburutegian

TTIPI-TTAPA

Etxepareren album ilustratuak erakusketa ikusgai izanen da apirilaren 19tik 30era, astelehenetik ortziralerara, 14:00etatik 20:00etara herri liburutegian. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak antolatu du erakusketa, Berako Kultur Batzordearen eta udalaren laguntzarekin.

Bertze aldetik, Euskara Mankomunitateak, udalaren laguntzaz, euskaraz ez dakiten gurasoei zuzendutako *Todo lo que debes saber sobre el modelo de inmersión en euskara*

solasaldia ere antolatu du apirilaren 19an, astelehenean 17:00etan Kultur Etxean. Solasaldia gaztelaniaz emanen du Paula Kasaresek.

Sugarren mende

Apirilaren 22an, ortzegunean 18:00etan kultur etxean *Sugarren mende* liburuaren aurkezpena eta solasaldi ilustratua egingen dute Asisko Urmenetak eta Helena Xuriok. Urrutirago joan gabe, larunbat honetan, apirilak 10, bertako ekoizleen merkatua izanen da Beralandetan (10:30-13:30).

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralerara

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

Jauzena

Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxez etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1, behea • T./F. 948 625 206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • T./F. 943 633 050 • IRUN

Potentzia handiko laserra. Allyane metodoa

Logurak
www.logurak.com

gauko konfort-kuxina

Centro Prim
regina tolosaechepare

Turismo teknikari berriak arlo horren plana ere egingen du

Asier Osés Gainza beratarra kontratatu du sei hilabeterako udalak eta Aste Santutik hasia da lanean

AITOR AROTZENA

Turismo bulegoak atek ireki ditu Aste Santuan eta ondoko egunetan ere halaxe egingen du. Apirilaren 7tik 10era 10:30etik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara egonen da zabalik eta apirilaren 11n, 10:00etatik 14:00etara.

Sei hilabeterako kontratatu duen Asier Osés Gainza beratarra izanen da turismo bulegoko teknikaria. Turismo bulegoko lanez gain, udalarekin batera Turismo Plana gauzatzeko lanean ariko da Osés. Berriki etxebizitzarekin egin den bezala, turismo arloan ere herriko beharrak aztertu eta gai honen inguruan herritarren iritzia bilduko ditu.

Bertze aldetik, udalak komunikazio modu berri eta azkar bat eskaini nahi die herritarrei, ekitaldi, albiste eta



Asier Osés da turismo teknikaria

ohar interesgarrien berri izateko. Zerbitzu berri honekin, Whatsapp bidez, mugikorrean hartuko dituzte herritarrek udalaren jakinarazpen guztiak. Horretarako, mugikorrean kontaktu berri bat sortu behar da, adibidez, *Info Lesaka* izenarekin, 621 22 46 61 zenbakiarekin. Gero, mezu bat bidali behar da kontaktu horretara *Alta* hitzarekin. Halere, udalarekin harremanetan jartzeko ohiko bideak erabili beharko dira.

En Tol Sarmiento taldearen kontzertua maiatzaren 1ean

Martxoaren 27an eskaintzekoa zuen En Tol Sarmiento (ETS) taldeak kontzertua Harriondoan. Emanaldi bikoitza iragarria zuten, 17:00etan eta 19:30ean, baina gibelatu behar izan zuten, taldekide bat bakarturik zegoelako. Maiatzaren 1ean izanen da kontzertua eta bi emanaldi izanen dira, oraingoan ere, 17:00etan eta 19:30ean. Dagoeneko sarrerak erosiak zituztenek horiek hurrengo emanaldirako gorde ditzakete edo, nahiago badute, salmenta puntuetan dirua itzuliko diete.

Antzerkia, literatura eta musika datozen egunetarako

Ilargiaren atzean antzezlanaren eskainiko dute apirilaren 10ean, larunbatean 18:00etan Harriondoan. Udalak eta Nafarroako Antzoki Sareak antolatutako emanaldirako sarrera bost euro ordaindu beharko da. Apirilaren 16an, ortziraletan 18:30ean, *Sugarren mende* liburuaren aurkezpena egingen du Asisko Urmenetak Harriondoan. Apirilaren 17an, larunbatean 19:00etan kontzertua emanen du Txamukos Mariatxiak taldeak Harriondoan. Sarrera sei euro ordaindu beharko da.



POTRONKO

Zazpi txapeletatik sei herrira

Euskal Herriko sokatira txapelketan, emakumezkoen bi kategorietako eta gizonezkoen lau kategorietako txapelak jantzi ditu Beti Gaztek, inoiz lortu gabeko marka. Txapelketa mistoan bigarren izan zen eta arantzatxo hori gelditu zaio. Apirilaren 17an Nafarroako 4x4 txapelketari ekinen diote.

'Ezagutu dezagun Lesaka' lehiaketa apirilaren 23a arte

Gaztetxoek herria hobeki ezagutzea helburu duen *Ezagutu dezagun Lesaka* lehiaketa martxan jarri du Beti Gaztek, aurten Lehen Hezkuntzako ikasleei bideratua. Erantzunak aurkezteko azken eguna apirilaren 23a izanen da. Partehartzaileek Lesakarekin zerikusia duten 30 galdera erantzun eta, orriak beteta, *kultura@betigazte.net* helbidera bidali edo egoitzako atean dagoen postontzian sartu beharko dituzte. 50, 40, 35 eta 30 euroko erosketa-txartelak izanen dituzte sarritzat.

37. Txoko-Txiki lehiaketa martxan du Tanturumairuk

Txoko-Txiki ipuin eta ilustrazio lehiaketaren hogeita hamazazpigarren edizioa antolatu du Lesakako Tanturumairu ikastolak, udalaren laguntzaz, Lehen Hezkuntzako ikasketak Lesakan egiten dituzten ikasleei zuzendua. Lanak apirilaren 26rako aurkezteko behar dira. Lan guztiak goitizenez sinatuko dira eta aparteko orri batean, goitizenarekin batera egilearen izena, adina, maila eta ikastetxearen izena idatziko dira. Lanei buruzko ezaugarriak bi ikastetxetan jaso dituzte.

LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa · LESAKA
T. 948 637 826

Denok Bat
Hemen erabili
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK
· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA



Depuradoraren ondoan dagoen lur zatian eginen dute heliazalera.

Helikopteroentzat heliazalera eginen dute Behekolandan

177.159,81 euroko aurrekontua izanen du eta %65 Europako Diru Funtsak finantzatu du

IRUNE ELIZAGOIEN

Etxalarko heliazalera Behekolandan eginen dute, depuradoraren ondoan dagoen lur zatian. Aunitzentzat hitz berria da heliazalera. Zehazki, helikopteroak noizbehinka bakarrik ibiltzeko prestatuta dauden azalera dira heliazalera. Etxalarko heliazalera HeliNET proiektuaren parte da eta Nafarroan dagoeneko egin dituzten gainerako heliazalera bezala, osasun larrialdietan, erreskateetan edo hondamendi naturaletan erantzun-denborak optimizatzen laguntzen

duzen helikopteroen sare logistikoa handitzeko eginen dute.

Nafarroan zazpi

Horretarako, Nafarroako Gobernuak zazpi heliazalera eraikitzeko obrak lizitatu zituen 2020ko urrian: Etxalarren, Leitzan, Saldiasen, Izaban, Iruñean, Ultzaman eta Lekunberrin. Egitasmoak 177.159,81 euroko aurrekontua du eta %65 Europako Diru Funtsak finantzatu du. Informazio bilera egin zen kultur etxean martxoaren 30ean.

Asisko Urmenetak bere azken liburua aurkeztuko du

Asisko Urmeneta marrazkilaria *Sugarren mende* liburua aurkeztuko du Kultur Etxean apirilaren 17an, 18:00etan. Bere arbel eta errotulagailu magikoekin lagunduko duen aurkezpenerako edukiera mugatua izanen da, eta bete arte sartzen ahalko da jendea.

'Miñan' liburuaren aurkezpena apirilaren 24an

Altxata elkarteak bere 30. urteurrena ospatzeko ekitaldien artean lehenbizikoa apirilaren 24an izanen da. Amets Artzallus eta Ibrahima Baldek *Miñan* liburua aurkeztuko dute kultur etxean, 19:00etan. Edukiera mugatua izanen da, eta bete arte sartzen ahalko da jendea.



UTZITAKOAK

Espainiako Hard Enduro txapelketan

Xabier Gallardon, lagun duen Manu Santaolallarekin batera, Espainiako Hard Enduro txapelketako Senior mailan parte hartzen ari da aurten lehen aldiz. Bortz lasterketatik edagoneko bi egin dituzte, Lleidan (Seu de Urgellen), urtarrilaren 23-24ean eta bigarrena Errioxan (Arnedon), martxoaren 13-14an.



IRUNE ELIZAGOIEN

San Jose Zurginaren kofradia

Lehenengo urtean bertan behera gelditu bazen ere, aurten martxoaren 19an, San Jose Zurginaren Kofradiko kideek, azkeneko urte honetan hildako bazkideen aldeko meza izan zuten. Ondotik, urteko kuota ordaindu bidenabar, hamaiketako egin zuten Herriko Ostatuan.

KAGU

LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEA JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

IGANTZI



Herri kirol taldeak herrira bueltan, txapel guztiekin. MAITE, ANA ETA ITZIAR

Nafarroako Herri Kirol Jokoetan denak txapeldun

Kimu, haur eta kadete mailako herriko taldeek lortu dute garaipen historikoa proba konbinatuan

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Ezuste ederra eman zuten herriko neska-mutikoez martxoaren 28an Antsoainen jokatutako Nafarroako Herri Kirol Jokoen finalean. Izan ere, ez bat eta ez bi, proba konbinatuetako hiru txapelak ekarri baitzituzten herrira. Garaipen historikoa, dudarik gabe.

Kimu mailan (11-12 urte) izan zuen lehia estuena Igantzi Araxesekin, baina 10 zentesimategatik lortu zuen garaipena herriko taldeak.

Haur mailan ere (13-14 urte) Igantzi izan zen txapeldun (09.13), Araxes bigarren (09.29) eta Berriozar hirugarren (09.35).

Kadete mailan (15-16 urte), azkenik, ligaska moduan jokatzen txapelketa. Azken jardunaldira puntu gehienarekin Igantzi ailegatu zen eta, zalantza guztiak uxatzeko, azkenekoan ere Igantzi ongi gailendu zen, Berriozar, Antsoain eta Txantrearen aitzinetik.

Afrikar dantzen tailerra eta euskal dantzetan hasiak

Apirilaren 18an, igandean, afrikar dantzen tailerra izanen da herrian Olatz Amalurrekin. Izena emateko epea oraindik irekita dagoenez, parte hartzera animatzen den jende kopuruaren arabera antolatuko dira txanda eta ordutegiak. Tailer interesgarri eta dibertigarria benetan! Bertze alde-tik, hasiak dira dagoeneko herriko dantzari guztiak entseguekin. Orain arte gazteak bakarrik zebiltzan eta oraingoan ttikienak ere hasiak dira. Ea jendaurrean dantzatzeko aukerarik baduten aurren!

Urko Telletxea Nafarroako Kirol Jokoetan txapeldun

Martxoaren 20an Iruñeko Labrit pilotalekuan Urko Telletxea Sein Kirol Jokoen eskuz banakako benjamin B mailako finaleko txapeldun suertatu zen, 18-10 irabazi baitzion Oberenako Iñarreari.



Urko Telletxea txapeldun Labriten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskolakoak kanpaldian

Eskolako 4., 5. eta 6. mailako ikasleak Zugarramurdira joan ziren bi egun pasatzera martxoaren 25ean. Urte kaxkar honetan gauza haundirik ezin egin eta irteeratxo ttiki hau bada ere egitera aminatu dira. Ilusio haundiarekin joan ziren umeak eskolako errutinatik eskapo eta Amaieur ere bisitatu zuten.

LARRETXEAK EGYRRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOEGIA MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com

EDERKI tailerra

CITRÖEN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

Bertako gaztaina barietateen tailerrak harrera ezin hobea

28 lagunek parte hartu zuten martxoaren 27an egindako ikastaldian

NEREA ALZURI

Udalak bertako gaztaina barietateak berreskuratzeko abiatu lan prozesuan kokatuz, joan den martxoaren 27an, egun osoko ikastaroa izan zuten. Eguraldia lagun, erantzun ederra izan zuen deialdiak, 28 lagunek parte hartu baitzuten ekimenean.

Udaletik adierazi digutenez, aurreikusitako guztia egiteko modua izan zen, jendearen jakin-min eta parte-hartzearekin. Efrene Martin adituak gidatu zituen eguneko zereginak eta berarekin batera, Joseba Iburgurengoitia Euskal Herriko Hazien Sareko ordezkaria eta Mikel Diaz gobernuko teknikariaren azalpenak ere izan ziren. Azken honek proiektuaren nondik norakoak eta ildo honetan gobernuaren egiten ari den lanaren berri eman zuten.

Argatsoro azpian egin zuten goizeko saio praktikoa. Bertan, hasteko, gaztaina zahar batetik txertatzeko moduko mentuak nola eta zein jaso azaldu zuten. Ondotik, garai honetan gaztaintarekin egiten diren txertaketa motak azaldu zituzten Efrenek; azkenik nahi zuenak praktikatzeko aukera ere izan zuten.

Arratsaldeko saio teorikoa eskolako gimnasioan egin zuten. Kanpoko (iberiar penintsulako) fruitua emateko gaztaina barietateen eta txertaketak egiteko sektorean erabiltzen diren gaztaina oinen (gaitzekiko erresistenteak direnak) inguruan mintzatu ziren.

Udalak aipatu digunez, hurrengo tailerra uda aldera izanen dute, abuztu akabailan seguruenik. Eguna hurbildu ahala, data finkatzen denean, horren berri emanen dute.



Argatsoro aldean ikastaroaren alde praktikoa egin zuten. IMANOL LUKANBIO



KRISTINA GOÑI

Ipar martxa ikastaroa

Martxoaren 21ean, goizez, Jon Medrano monitorea gidaturiko ipar martxako ikastaroan, zortzi lagunek parte hartu zuten. Hiru orduz, kirol modalitate honen inguruko hainbat azalpen entzun eta praktikara eramateko modua izan zuten. Arrakastaren seinale, bertze talde bat ere sortzen hasiak dira.

Hainbat txapel ekarri dituzte herriko pilotari gaztetxoek

NEREA ALZURI

Martxoaren 28an, Baztango 39. pilota txapelketaren finalak jokatu zituzten Almandozen eta Iruritan. Herriko eskolako pilotariak ere parte hartu zuten txapelketan eta finaleko saioan ere aritu ziren, baita txapelak lortu ere. Umeen B mailan,

Amets Madariaga eta Beñat Goñi txapeldun izan ziren eta Umeen A mailan, Oinatz Mariezkurrena eta Ander Etxegarai nagusitu ziren. Bertzetik, Ander Etxegarai, bere kategorian, Nafarroako kirol jolasetan txapela lortu du. Zorionak eta segi pilotaz gozatzen!



Etxegarai eta Mariezkurrena goian, eta Goñi eta Madariaga, behean ezkerretik 3. eta 4.a.



Bortzirietako hainbat herritar bildu dira M1, Klase Kontzientzia Hedatu dinamikaren barrenean.

Langile klasearen kontzientzia indartzeko lanean

M1, Klase Kontzientzia Hedatu dinamika sortu dute Bortzirietako hainbat herritarrek eta zenbait ekimen iragarri dituzte

TTIPI-TTAPA

«Beharra» badela sentituta, «gauzak ongi ez daudela» ikusita eta «langileok ere politika egiteko eskubidea badugula» sinetsita, langile klasearen kontzientzia hedatzeko dinamika abiatu dute Bortzirietako hainbat herritarrek, eta maiatzaren 1aren atarian, hainbat hitzaldi eta ekimen eginen dituztela iragarri dute.

M1, Klase Kontzientzia Hedatu izena paratu diote dinamikari. Taldean bildu direnen ustez, «bere garaian langileek lortu zituzten onura guztiak galtzen ari gara pixkanaka, eta

langileria inoiz baino itzaliago dago». Langile kontzientzia «zaharkituriko kontua dela sinetsarazi nahi digutela» diote, «baina jakin badakigu hori ez dela horrela: Kapitalismoan bizi garen bitartean, zapaltzaile –burgesak– eta zapalduon –langileak– artean banatuko dagizarte». Horregatik, «maiatzaren 1ak inoiz baino garrantzi handiagoa» hartu behar lukeelakoan daude.

«Urte gogorak heldu dira»

Taldearen irudiko, langileen egoera ez da ona: «osasun larrialdia batetik eta kapitalis-

moaren krisi estrukturala bertzetik». Azken hilabeteetan izan den «poliziaren jarrera oldarkorra eta bizitu duten inpunitatea» aipatu dituzte eta «osasungintza indartu beharrean polizia indartu» dutela salatu dute. Gaineratu dutenez, «zentzurik gabeko neurri murriztaileak ezarri dituzte: askatasun politikoak murriztuz, partidu politiko guztien onespenerekin».

Argi dute «neurri horiekin politikariak ez direla pandemia gelditu nahian ari, baizik eta kapitalismoa sartu den krisi ekonomikoaren aurrean langileriak eman dezakeen erantzuna gelditu nahi dute». Hala, «langabezia gero eta handiagoa eta lan baldintzak gero eta okerragoak» direla oroitarazi dute.

APIRILEAN HAINBAT HITZALDI ETA EKIMEN EGINEN DITUZTE

«Urte gogorak» heldu direla diote eta «Europako eta beraz, baita Espainiako eta Euskal Herriko burgesiak ere badu horren berri eta horretarako prestatzen ari dira; Europako funtsen dekretuak onartu dituzte, goi burgesiaren plan ekonomikoa, eta honek hurrengo hilabete eta urteetan langileen murrizketa berriak ekarriko ditu». Egoera ikusita, «egoeraz jabetzeko» deia egin dute, «has gaitezen klase kontzientzia hedatzen eta langileen antolakuntza eta klase batasuna sustatzen».

Hiru hitzaldi apirillean

Dinamikan baitan hiru hitzaldi izanen dira. Larunbat honetan, apirilaren 10ean, eginen dute lehenbizikoa, 11:00etan Lesakako Harriondoa Kultur Etxean. Kapitalismoaren oinarriez ariko dira. Bigarrena apirilaren 17an eginen dute eta «langile klasearen sorrera, bilakaera eta egungo egoera» izanen dituzte hizpide. Hirugarrena hilaren 24rako aurreikusitua dute. Aitzindu dutenez, «mahai-inguru bat izanen da, eta gaur egun Euskal Herrian garatzen ari diren langile borroken esperientzia praktikoko pare bat» landuko dituzte. «Guztiak ere Bortzirietan eginen ditugu, Bortzirietako jendea elkartu garelako».

Hitzaldi horiez gain «bertze ekimenen bat» bultzatuko dutela adierazi dute eta horrez gain, «maiatzaren 1ean mobilizatzeko deia eginen dugu».

LARRALDEA
eta
LINDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

Txotx denboraldiaren irekiera

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

caser
residencial
www.caserresidencial.es

Laguntza zerbitzuak

- Medikua
- Farmazia
- Erizaintza
- Psikologoa
- Gizarte langilea
- Okupazio terapia

Ostalaritza

- Harrera
- Garbiketa
- Ikuztegia
- Sukaldea
- Mantentze zerbitzua

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

- Animazio soziokulturala
- Nutrizioa
- Podologia
- Odontologia eta dentista
- Logopedia
- Audioprotesista

Bestelakoak

- Ile-apainketa
- Jostuna
- Erijiro zerbitzuak-Meza
- Kanpora laguntza
- Laguntza teknikoaren kudeaketa

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

Bigarren urtez Malerrekako eskolen joko topaketarik gabe

Malerrekako eskola ttikiak egoera hobetzea eta heldu den urtean ospatu ahal izatea nahi dute

MAIDER PETRIRENA

Bigarren urtez segidan Malerrekako eskola ttikiak ezin izan dute beraien elkartasuneko egun ederra ospatu, Joko Topaketa. Ea egoerak hobera egin eta datorren urtean ospatzerik duten.

Pilotariak

Nafarroako Jokoen bikoteko-pilota txapelketa martxoaren 27an hasi zen: Santi Jimenez Etxeberri, Aimar Bertiz Babaze, Ibai Maritxalar Ibarra, Iraide Iriarte Petrirena eta Nahia Bertiz Babaze ari dira.

Eneko Herrera eta Jon Maritxalar Arbizuko Duatloian

Martxoaren 27an Arbizuko Duatloia egin zen eta bertan herriko bi kirolarik parte hartu zuten: Eneko Herrera Urrozek eta Jon Maritxalar Etxeniketik (argazkian). Biak ere gustura bueltatu ziren egindako lanarekin.



UTZITAKO ARGAZKIA



UTZITAKOIA

Eneit Bertiz berriz podioan

Rural Kutxak antolatutako BTT karrerak izan zituzten herritarrek martxoaren 21ean Fiteron. Emaizta onak lortu zituzten: Koldo Herrerak (junior) bigarren postua eta Eneit Bertizek (kadete) hirugarren postua lortu zuen. Oihan Apeztegiak eta Markel Agestak 38. eta 39. postuak lortu zituzten kadete mailan.

TTIPI-TTAParen eta ERRAN.EUSen

laguna izan nahi dut!

- 1 Bertako informazioa eduki nahi dudalako.
- 2 Euskaraz bizitzen lagunduko didalako.
- 3 Gure lurraldean hedabide euskaldunak behar ditugula uste dudalako.
- 4 Tratu zuzen eta hurbilekoa eskaintzen didalako.
- 5 Nire aportazio ttiki batekin TTIPI-TTAParen eta ERRAN.EUSen iraupena segurtatzen dudalako.



→ erran.eus/bazkidetu
T. 948 63 54 58



Ttipi Txartelarekin
abantaila handiak;
deskontuak eta zozketak

MEKNari esker nire donazioak
%80ko desgrabazioa duelako
Errentaren Aitorpenean



ttipi-ttapa

erran.eus



'Erik eta Win' ikuskizuna izanen dute apirilaren 25ean.

Magia, filma eta ikuskizuna izanen dituzte apirilean

Odei magoaren emanaldiaz gozatzeko aitzinetik gonbidapena jaso beharko dute

MARGA ERDOZAIN

Martxoko agendaz gozatu ondotik, apirilako hitzorduei begira hasiak dira herritarrak. Hilabete honetan ere, haur, gazte eta helduentzako ekitaldiak izanen dituzte.

Hasteko, apirilaren 8an, ortzegun honetan, Intzardiko disko-golfaren aurkezpena izanen dute.

Odei magoaren ikuskizuna

Larunbatean, hilaren 10ean, berriz, 18:30ean, zinema aretoan Odei magoaren ikuskizunean murgilduko dira. Osasun egoera tarteko, edukiera mugatua izanen denez, bertaratu ahal izateko aitzinetik gonbidapena hartu beharko da.

'Terra Willy' filma

Apirilaren 18an, igandean, zinema aretoan *Terra Willy*

filma pantailaratuko dute eta ikusi ahal izateko sarrerarik ez da ordaindu beharko.

Gaztetxoentzako film honek Willy mutik kozkorren espazio bidaia du ardatz. Willyk esploratu gabeko planeta basati batean lur hartuko du eta gurasoekin bat egiteko modua aurkitu beharko du.

'Eric eta Win' ikuskizuna

Azkenik, apirilaren 25ean *Eric eta Win* ikuskizuna izanen dute zinema aretoan. Lan horretan bertsoa, antzerkia, poesia, musika... lantzen dira. Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariek egiak eta esperientziak kontatuko dituzte, harremanak aztertu eta umorez zipriztinduta aurkeztuko dituzte.

Ekitaldi hauen ordutegia eguna hurbildu ahala jakinaraziko dute.



UTZITAKOIA

Arbizuko duatloian Errekako hiru kide

Martxoko azken larunbatean, hilaren 27an, Arbizun izan zen duatloian Errekako hiru partaide izan ziren: Ibon Erdozain Ibarra, Jon Maritxalar Etxenike eta Endika Eugi Goñi. Hirurek lan bikaina egin zuten eta 15., 22. eta 24. postuak lortu zituzten hurrenez hurren.

Ehiztarien borda itxi dute erabilera desegokiagatik

Udalak Askin ehiztarien borda itxia erabaki du azken bolada honetan erabilera desegokia ematen ari zitzaiolako. Herriko Etxeak aldi baterako itxialdia dela adierazi du, «Covid-19a dela eta osasun neurriak bete-zeko hartua». Berriz irekitzen dutenean jakinarazko dute.

Hondakin gune guztietan ontzi marroia eskura

Mankomunitateak bultzatutako kanpainaren ondorioz herritarrek hondakin gune guztietan ontzi marroia eskura eta hurbil dute. Horrela izanda, aski da mankomunitatean ontziak eta poltsak eskuratzea. Argibideak eta informazioa 948 45 17 46 telefonoan.

Kontsumitzaileen bulegoa apirilaren 23an eta 30ean irekiko dute

Kontsumitzaileen bulegoa apirilaren 23an eta 30ean irekitzea aurrekusi dute. Egun horietan Irache kontsumitzaileen elkarterko teknikariek kontsulta bat egin nahi duenak, lehenik eta behin, hitzordua eskatu behar du 948 45 17 46 telefonora deituz.

Malerrekako Mankomunitateari esker, zerbitzua debalde da Malerreka eta Bertizaranako herritarrentzat. Etxebizitzei, aseguruiei, banketxeei, aurrezki kutxei, etxeko zerbitzuei, tailerrei, administrazioari... buruzko zalantzak argitzeko lagungarri gerta daiteke.



MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Epzelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Alazne Untxalok eta Iker Gorosterrazuk 'Zapla' egitasmoan parte hartuko dute

ARKAITZ MINDEGIA

Aurten Nafarroako Bertsolari Txapelketaren urtea genuen. Egoera honetan Nafarroako bertsolari elkarteak txapelketa atzeratzea erabaki zuen.

Baina bertsolariak plazarik gabe ez gelditzeko *Zapla* egitasmoa abiatu dute udaberri honetan eta Nafarroako bertsolariak arituko diren zazpi saio borobil antolatu dituzte.

Xabier Terreros, Ander Fuentes *Itturri* eta Ekhone Zapiarekin ariko da Maddi Ane Txoperena gai-jartzaile dutela. Saio hau Eneko Aizpurren *Bidasoan Gara* liburuan oinarrituko da.

Iker Gorosterrazu, aldiz, Irurtzunen ariko da, Irati Majuelo eta Sustrai Colinarekin, Maialen Belarrak jarritako gaiei erantzunez.

Herriko ordezkariak

Bitan herritarrek hartuko dute parte. Apirilaren 23an Berako kultur etxean Alazne Untxalo,

Sarrerak eskuragarri

Saio guztietako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eskuratzen ahal dira.



UTZITAKOA

Iñaki Leiza txapeldun

Nafarroako Kirol Jokoen barne, martxoaren 19an eta 20an jokatu zituzten banakako pilota txapelketako finalak Iruñeko Labrit pilotalekuan. Hirugarren mailako benjaminetan Erreka taldeko Iñaki Leiza aurtiztarrak (ezkerrean) txapela jantzi zuen, Irurtzungo Osinagari 18-17 irabazi ondotik.

Ugaitz Elizalde ederki ari da banakako zein binakako txapelketetan

Ugaitz Elizalde indartsu dabil Espainiako buruz buruko txapelketan. Burlatako klubarekin jokatzeko ari da eta finalurrekoetara sailkatzea lortu du. Txapelketa horretan ez ezik, Garfe enpresarekin, binakako txapelketan, ere bikain dabil.



Ugaitz Elizalde.

Pulunpa eskolan hirugarren hiruhilekoa martxan da

Pulunpa eskolako ikasle eta irakasleak Aste Santuko oporren ondotik lanean hasiko dira buru-belarri. Azken hiruhilekoari gogotsu ekin diote, azken ikasturtea dutenek institutura beraien bisita egiten zuten, baina bizi dugun

egoera tarteko, Mendaurren institutuko zuzendari eta orientatzailea hurbilduko dira eskolara informazioa zabaldu eta kezka argitzera. Bertetik, Pulunpa eskolan, eskola aldatzearekin, telefono zenbakia ere aldatu dute eta 948 39 43 90 da orain.



UTZITAKOA

Herritarrek txirrindularitza sariketan

Baztandarra txirrindulari elkarteko txirrindulariak gogotsu dabilta entrenatzen. Kuadrilla hauen artean bi herritar daude: Ander eta Asier Telletxea Ariztegi. Martxoaren 6an Iratxe kanpinoko VI. sariketan parte hartu zuten biek, Nafarroako jokoe-tan puntuatuz.



UTZIYALPA

Mendaurren gero eta bisitatuago

Gure herriko kasko honetara igotzen diren mendizaleak geroz eta gehiago dira. Koronabirusaren presentziak jendartearen mendira joateko plana indartu egin du, eta Mendaurren inguruko mendirik bisitatuenera izaten ari da eta eguraldia lagun denean nabarmena izaten da hori.



Fuentes 2017ko Nafarroako bertsolari txapelketan.

Fuentesen bertsoak Aitor Sarasua lehiaketan sarituak

Helduen mailan bigarren saria Elixabet Etxandik lortu du eta hirugarrena Urko Egañak

FERMIN ETXEKOLONEA

Bertsularien Lagunak elkarteak lehen aldiz antolatutako Aitor Sarasua bertsopaper lehiaketa irabazi du Ander Fuentes Mujika *Itturri* bertsolari zubietarrak. *Gorostiari* bertso-sortari esker, 300 euro, Bertsolari Txapelketa Nagusirako sarrera, *Bertso eta kantak* liburua eta trikota berdingabea jaso ditu saritzat.

Gazte mailan, Nahia Etxeberri Lopeperen *Munduko injustiziak* bertsoak saritu dituzte. Bigarren saria Leina Alkhat Larrandaburuk eskuratu du *Euskal Herriko ihauteak* bertso-sortarekin eta hirugarrena

Kemen Bidegain Bergarak *Ni artzaina* lanarekin.

Helduen mailan, bigarren saria Elixabet Etxandiren *15 urtez* bertso-sortarentzat izan da eta hirugarrena Urko Egaña Calderonen *Ni ere gaixotu nintzen* lanarekin izan da. Bi aipamen berezi ere egin ditu epaimahaiak, Moises Enbeitaren *Eskutik eskura* eta Mizel Mateoren *Bakardadearen itzala* bertsopaperentzat.

Sari banaketa bertso bazkari/afari batekin egitea da elkartearen asmoa eta «uda jin aitzin» ezinezkoa balitz «bertze molde bat» bilatuko dute.

Errekaldea kaleko ubidearen estaldura konpontzeko eskaintzak jaso nahi dituzte

Zubietako Udalak Errekaldea kaleko ubidearen estaldura konpondu nahi du eta lan horiek egiteko interesa duten enpresei euren aurrekontua aurkezteko deia egin die. Enpresek udalaren posta elektronikora (udala@zubieta.eus) bidal dezakete eta aurre-

ratu dutenez, lanek uztaile-rako bukatuak egon beharko dute. Obrari buruzko xehetasunak (egungo egoera, planoak, memoria, proposamena, etab.) biltzen dituen proiektua udalaren webgunean zintzilikatu dute, interesa duen ororentzat.



JAIONE ZABALO

Gaitasun digitala garatzen Ezkurran

Nafar Lansarek antolatuta, oinarritzko gaitasun digitalei buruzko ikastaroa izan zuten martxoaren 22tik 26ra Ezkurran. 13 lagunek egin zuten ikastaroa eta Baztaneteko Ioritzen eskutik gaitasun digitalak landu ahal izan zituzten, giro ezin hobean.

Hogeikolunbario zozketatu dituzubietako Udalak

Kolunbarioen zozketa martxoaren 26an egin zuten Zubietako udaletxean. Udalak 35 kolunbario egin ditu eta horietatik 20 izan dira esleitu dituenak, horiek izan baiziren aurretik izena eman zutenak. Hurrengo egunetan esleitu zaien kolunbarioen zenbakia jasoko du bakoitzak. Hemen-dik aurrera interesa duenak udaletxean eskaera egin behar du eta libre dagoen hurrengo esleituko zaio zuzenean; hau da, hurrengo 21. a izanen da... Ordenantzaren 28. artikulua zera dio: Errauts-ku-

txatilik modu antolatuan gordeko dira kolunbarioetan, hau da, ezkerretik eskuinera eta goitik behera. Beraz, ezin-go da hurrengo ilarako kolunbariorik erabili aurrekoa erabat beteta egon arte. Hala ere, kolunbarioa eraiki eta hasierako esleipenean, eskatzaile guztien artean kolunbarioen zenbakia ez da hurrenez hurren ezarriko eskaeraren ordenaren arabera, baizik eta zozketa bidez.

Kolunbario-unitatea erabiltzeko epea 99 urtekoa izanen da eta bitan luzatzen ahal da.

Egur lote baten enkante publikoa egin du Zubietako Udalak

Zubietako Udalak egur lote baten aprobetxamendua esleitzeko enkante publikoa egin du. Lotea Azkarateko alderdian dago eta 355 haritz amerikarrak, 82 laritzek eta izeik osatzen dute eta 10.958,22 euro balio dute (BEZ kanpo). Enkantean parte hartzeko pro-

posamenak herriko etxeko idazkaritzan aurkeztu behar dira apirilaren 12a baino lehen. Xehetasunak www.zubieta.eus atarian irakur daitezke eta baldintza tekniko eta ekonomikoaren agiriak Zubietako udaletxeko idazkaritzan daude ikusgai.



Neguan aparkaleku berria egin dute eta, beraz, edukiera handitu dute.

Leurtza urtegiko denboraldia martxan da dagoeneko

Ordaindu beharreko diru-saria bortz eurokoa izanen da eta iazko segurtasun neurriak mantenduko dituzte

JAIONE ARIZTEGI

Joan den urtean atzerapenarekin hasi bazen ere, aurten Leurtza urtegiko denboraldia urteroko tenorean (San Jose aitzinetik) hasi dute. Martxoaren 15ean abiatu zen eta, aitzineko urteetan bezala, hiru langile ari dira lanean: Urrozko bi eta Beintza-Labaiengo bat. Azken hori Aste Santuan aritu zen eta udan ere ariko da.

Aurtengo neguan, aparkaleku berria egin dute, eta horrekin, iazko edukiera handitzea aurreikusi dute (hala ere, oraindik ez dakite zehatz-mehatz zenbat kotxe sartu

ahal izanen diren). Horrekin batera, aipatzekoa da, segurtasun kontuengatik, hemendik aitzinera ezinen dela errepide bazterrean aparkatu, erabat debekaturik egonen da.

Ordaindu beharreko diru-saria, orain arte bezala, auto bakoitzeko bortz eurokoa izanen da eta Covid-19aren aurkako neurriak iazko berberak izanen dira (komunak desinfektatuko dira, mahaiak erreserbatu behar izanen dira, paseatzeko noranzko bakarreko ibilbide zirkularra izanen da, etab.).



Herriko gaztetxo batzuk iaz sormen tailerrean egindako lanekin.

Donamariako Haur Txokoa arratsaldetan irekita

NATALIA REKARTE

Apiril hasieraz geroztik, martxan da Donamariako Haur Txokoa. Asteleheneetik ortziralerara, 17:30etik 19:00etara, herriko gaztetxoek liburuak jaso edo bueltatzeko, ludotekari jolasteko... aukera dute. Arauak betearazteko eta segurtasun neurriak mantentzen

direla egiaztatzeko udako langilea bertan izanen da. Gehienez 12 lagun bildu ahal izanen dira. Haurrek ez ezik, gainerako herritarrek gozameneko tarteak izan dezaten, udalak aste kulturala ere antolatuko du. Orduko ekitaldien berri hurrengo aldizkarian emanen dugu.

Leurtzako estolda-zuloetako burdinak ebatsi dituzte

J. ARIZTEGI

Martxoko hondarreko asteburuan Leurtzako estolda-zuloetako burdinak ebatsi zituzten. Urrozko eta Beintza-Labaiengo udalek burdinak ebatsi izana gaitzetsi eta ingurua zaintzeko eskaera egin dute.



Burdinak falta dira.



Elizagibela Promociones S.L.

ETXEBIZITZA PROMOZIOA
18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL

www.elizagibelapromociones.com
elizagibelapromociones@gmail.com

T. 643 466 998



• 2, 3 eta 4 logeletako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela kalean.

• Lokal komertzialak.

Janari errezetak biltzen eta zabaltzen hasiko dira

Jasotako errezetak buletinetan argitaratuko dituzte denen eskura egon daitezen

TTIPI-TTAPA

Elkartek otsailaren 15ean egindako urteko lehenbiziko bileran proposamen bat mahairatu zuten: errezetak biltzen hastea. Horrela bada, lerro hauen bidez, elkarteko kideei arbasoetatik jaso dituzten, ezagutzen edota egiten dituzten janari errezeta kuttunenak elkartera bidaltzeko gonbidapena egin nahi izan diete.

Paperetik platerera

Elkartean jasotako errezeten artean elkartearentzat inte-

resgarrienak gertatzen direnak sei hileroko buletinean argitaratzeko asmoa dutela aurreratu dute. Horrela, norberaren etxeetako plater gozoak sukalde gehiagotan prestatuko dira eta, bide batez, ondorengoentzako idatziz bilduta geldituko dira, gal ez daitezen.

Nora eta nola bidali


Errezetak bidaltzeko bi modu zabaldu dituzte: paperean edo posta elektronikoz bidali ahal izanen dira. Eskuz idatzirikoak herriko ordezkariari eman edo Doneztebeko bulegora eraman behar dira astelehenerik ortzirralera (goizez).

Ordenagailuz idatzitakoak, berriz, elkarteko helbide elektronikora bidali behar dira (arkupeak@yahoo.es).

ESKUZ EDO ORDENAGAILUZ IDATZITA BIDAL DAITEZKE

Kandida Mitxelena elkarteko kideak utzi egin gaitu

1992az geroztik elkarteko kidea zen Kandida Mitxelena Jorajuria sunbildarrak, martxoaren 11n utzi gaitu, 101 urterekin. Itzaldekoborda baserrian jaioa 1920. urteko urtarrilaren 13an, eta Galtxatenbordan eman zuen ia bizitza osoa, bortz senideko familia ederrean. Aipagarria, nola ez, zenbateko hutsa utzi duen, familiakoen eta laguneren artean hain maitatua eta estimatua izanik. Baserritar gehienek antzera nekazaritza izan zuen ogibide, jostun trebea ere izan zen itsutasun



Kandida Mitxelena.

gaixotasunak erasan arte. Lerro hauen bidez, elkartek Kandidari esker ona adierazteko eta familia eta ingurukoiei besarkada estu bat bidaltzeko aprobetxatu nahi du. Goian bego.



Martxoko janari sorta Jose Jabierrentzat izan da.

Iruritako Jose Jabier Bazterrikarentzat martxoko zarea

PABLO IRASTORTZA

Urte hasierarekin batera elkarteak martxan jarritako galdera-erantzunen atala arrakastatsua izaten ari da. Hala erakusten dute emaitzek. Martxoan egindako galderari, erraterako, 30 lagunek zuzen erantzun diote, Frantziako Tourra irabazi duen euskal

txirrundulari ohia Migel Indurain Larraia dela adierazi dute. Asmatzaileen artean egindako zozketaren ondotik, Irurirata joan da zarea, bertan bizi den Jose Jabier Bazterrika Mutuberriarentzat izan baita. Lerro hauen bidez zorionak Jose Jabierri eta gainerakoek, segi ezazue saiatzen!

Apirileko galdera

Zein musika-tresnagatik da ezaguna Enrike Zelaia musikaria? Erantzuna 618 56 78 37 telefonora bidali behar da Whatsapp bidez apirilaren 23a baino lehen.



PABLO IRASTORTZA

Mendizaleak Leitzako lurretan

Martxoan Berastegira (Gipuzkoara) joatea ezinezkoa izan zenez, Leitzan egin zuten irteera. Plazaolako geltokitik abiatu eta Iruso, Txara, Arramia kaskoa, Biuztain, Baztarla eta Txaragorritin barrena abiapuntura bueltatu ziren. Joxemari Zabaleta gidari, lau orduko buelta ederraz gozatu zuten 30 mendizalek.

Sakelakoarekin bideo hobek egiteko ikastaroa apirilean

Izena emateko Malerrekako Mankomunitatera deitu edo idatzi behar da eta ortzeguna da azken eguna

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak esku-ko telefonoarekin bideo hobek grabatzeko gakoak ikasteko ikastaroa antolatu du. Oier Fuentes (Katubi ikus-entzuzkoak) izanen da gidari eta parte-hartzaileak Doneztebe-ko Herrigunean bilduko dira apirilaren 10ean eta 17an, bi larunbatetan. Guztira sei orduko ikastaroa izanen da, bi egunez 10:00etatik 13:00etara elkartuko direlako.

Izena emateko Malerrekako Mankomunitatera deitu (948



Oier Fuentesek emanen du ikastaroa.

45 17 46) edo idatzi (*euskaz-zerbitzua@malerreka.eus*) behar da eta azken eguna apirilaren 8a, ortzeguna, izanen da. Ikastaroaren truk ez da deus ordaindu beharko.

Lurrak tokiko ehiza barrutian ez sartzea eskatzeko epea zabalik

Nafarroako Aldizkari Ofizialean jakinarazi bezala, Donamaria Udalak tokiko ehiza barrutia eratzeko proiektua-sustatu du Nafarroako Ehezari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legean xedatutakoa betez.

Espedientea Donamaria, Oiz eta Urrozko bulegoetan egonen da jendaurrean eta barrutian sartu beharreko lurren jabeek euren lurrak barruti horretan sartu nahi ez badituzte apirilaren 16ra arteko epea dute hori adierazi ahal izateko.

Apirilaren 24an jokatuko dituzte XXX. Josetxo Ezkurra Memorialaren finalak

Josetxo Ezkurra zenaren omezez hogeita hamargarren urtez pilota txapelketa antolatu du Erreka elkarteak buruzburu eta aste hauetan jokatu dituzte lehen bi kanporaketak Doneztebe, Legasa eta Lesakako pilotalekuan. Hurrengo jardunaldia, hirugarren

kanporaketa, igande honetan, apirilaren 11n, jokatu dute Donezteben, Legasan eta Lesakan eta finalerdietako protagonistak ezagutuko dira. Finalerdiak hilaren 18an eta finalak apirilaren 24an jokatu dituzte. Denera ehun pilotari aritu dira.

Oiz, Urroz eta Beintza-Labaienen administrari laguntzaile izateko lanpostua

Oiz, Donamaria, Urroz eta Beintza-Labaiengo udalen zerbitzurako administrari laguntzaile lanposturako oposizio-lehiaketa deialdia zabalik dago. Sei hilabetetarako kontratua eskaini dute. Langileak jendeari harrera egin eta administrazio-lanak kudeatu beharko ditu.

izan beharko dute. Horrez gain, C1 euskara maila egiaztatu beharko dute, ziurtagiri hori edo baliokidea den bertze titulu bat aurkeztuta (gainerakoan izangaiak hizkuntza maila neurtzeko proba bat egin egiaztatu ahal izanen du).

Epea

Deialdian parte hartzeko eskabideak Oizko udaletxeko erregistroan aurkeztu beharko dira eta apirilaren 8a, ortzeguna, izanen da azken eguna (14:00 arte eraman daiteke).

Baldintzak

Izangaiak 16 urte beteak izan beharko dituzte eta eskaerak aurkezteko egunean eskola graduatua edo Lanbide Heziketako lehen mailako titulua



Saldiasako bitxikeriak telebistan

Navarra Television kateko Tiramillas saioak Saldias bisitatu zuen martxoan. Herriko aguazila izandakoarekin, abeltzainekin, okinarekin, kirolari eta eskulangile batekin... egon ziren eta kanpotik etorri eta herrian habia egin duten biztanle batzuk ere ezagutu zituzten. Saio osoa sarean dago ikusgai.

Mendialdeko baserritarren elkarteak sortu dute

Bi urteko prozesuaren emaitza izan da eta elkarteari Habelarte jarri diote izena

TTIPI-TTAPA

Bi urteko prozesuaren ondotik, Habelarte mendialdeko baserritar agroekologikoen elkarteak sortu dute mendialdeko ekoizleek. Hain zuzen, martxoaren 28an egin zuten elkarteak sortzeko batzarra Aralarren, eta Arano, Goizueta, Leitza, Areso, Araitz-Betelu, Larraun-Lekunberri eta Basaburua-Imotz-Ateko 28 ekoizle bildu ziren.

Duela hiru urte abiatu zuten bidea, «Leitzan Bertatik Bertara dinamika bultzatuta baserritar talde bat agroekologiaren bidea lantzeko elkar-

te bat sortu nahian hasi zenean». Hasierako asmoa Leitza eta Areso mailan zerbait egitea bazen ere, ateak ireki eta proposamena mendialde osora zabaldu zuten. Horretan aritu dira geroztik, eta bi urtez, Cerderna-Garalur Elkarteak elikadura teknikarekin egin duten elkarlanaren emaitza da Habelarte.

Nekazaritza iraunkorra helburu Elkarteak sortu berriak «osasuna, ingurumena, biodibertsitatea, klima larrialdia eta tokiko garapena» uztartu nahi ditu eta



Martxoaren 28an egin zuten elkarteak sortzeko batzarra Aralarako santutegian.

horretarako nekazaritza iraunkorra bultzatu nahi du, «eredu estentsiboan eta agroekologian oinarritutako praktikak sustatuz, prozesu eraldatzaileratuz ulertuta». Elkarteak adierazi duenez, «eredu hau landuta, gure etxaldean errentagarritasun ekonomikoa ez ezik, oreka soziala eta ekologikoa lortu nahi dugu».

Bide horretan sei lan-ildo finkatu dituzte: Baloreak, irizpideak eta hauetan oinarritu-

tako marka; ekoizpenaren zikloa; ekoizpena, eraldaketa, komertzializazioa eta banaketa; emakume baserritarra; komunikazioa; formakuntza eta intzidentzia politikoa eta idazkaritza eta diruzaintza.

Elkarteak sortu dute eta beste aldaketarik ez bada, apirilaren 25ean Leitzan egingen den Mendialdeko azoka ibiltarien aurreneko hitzorduan egingen dute aurkezpen publikoa.

Erakutsi eta
aprobetxatu
aukerak!

DESKONTUAK LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

<p>2019-2021</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Uhartre Gotzaina, 1- beheka 4 LEITZA T. 948 51 36 20</p>	<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37</p>	<p>%3 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55</p>
<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Huarte Gotzaina, 19 LEITZA T. 948 51 01 73</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTMEDERM markan ezik</p> <p>Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73</p>	<p>%10 DESKONTUA koltxo, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik</p> <p>Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08</p>	<p>%15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan</p> <p>Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86</p>
<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76</p>	<p>%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan</p> <p>Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46</p>	<p>%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan</p> <p>Amazabal, 23 LEITZA T. 948 61 09 74</p>	<p>%5 DESKONTUA erosketa guztietan</p> <p>Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48</p>
<p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Uhartre Gotzaina, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30</p>	<p>%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20</p>		

Ikusi TTIPI TXARTELA izateagatik hainbat denda eta zerbitzuetan **dituzun abantailak**



«Profesionaltasunak desberdintzen gaitu berteengandik»

FELIX MENA BARBERENA
FOTO MENA - ELIZONDO



Denda historikoa da Elizondoko Foto Mena. Argazkilaritzak izan dituen aldatetei egokitzen joan behar izan du bere 134 urtetako historian. Digitalerapausoa ematea «alde batetik ongi etorri zitzaigun, teknologia ona da eta aldakuntza arras ona izan zen, baina aldi berean txarra izan zen, bezero aunitz galdu ditugulako». Digitalizazio aroan, «jendeak ez ditu argazkiak inprimatzen, ordenadorean eta telefonoan izaten dituzte». Munduguztia argazkilariaz daitekeen garai honetan, profesionaltasunak desberdintzen du Foto Mena berteengandik, ez baitira argazkilaritza afizionatuek jarduten. «Guk egiten dugun lana ezkontzako erreportajeak, estudioko erreportajeak, jaunartzeak eta horrelakoak dira. Hor jende arruntak ezin du erreportaje profesional bat egin, horrek desberdintzen gaitu».



«Digitalizazioak gero eta indar handiagoa dauka»

LOREA AGIRRE IRIBARREN
KIMETZ BELARDENDA - DONEZTEBE



Publiko berezia dauka Doneztebeko denda honek, espezifikoa baina konstantea; «joera du, hau da, produktu mota honetan sinesten du eta bertan kontsumitzen jarraitzen du». Produktu ekologikoak saltzen dituzte Kimetzen, «ahal den heinean ingurukoak eta garaikoak». Barazki eta frutak, zerealak soltean, infusioak, elikagai konplementuak, kosmetika... eskaintza zabala dute. Honez gain, nutrizio kontsulta ere eskaintzen dute eta Lorea bera arduratzen da. Sare sozialei eta web orriari ere garrantzia ematen diete Kimetzen, «pandemiarekin batera digitalizazioak gero eta indar handiagoa dauka eta Interneten egotea beharrezkoa dela iduritzen zait. Gainera, garrantzitsua iduritzen zait osasunari inguruko beste ikuspegi bat eskaintzea».



«Herrian zerbitzu hau emateko aukera ikusi nuen»

AINHOA AZPIROZ UGARTEMENDIA
EDR GUNEA - LEITZA



Estetika betidanik asko gustatu izan zaio Ainhoari. Zizurren egiten zuen lan ileapaindegi eta estetikaren sektorean, EDR Gunea ireki baino lehenago. «Hango denda itxi egin zuten, eta orduan herrian zerbitzu hau emateko aukera ikusi nuen». Denetik eskaintzen dute Leitzaiko eder gune honetan; aurpegiko tratamenduak, depilazioak, manikura, pedikura, makillajea... Hala ere, pandemia garaian bezero kopurua asko jaitsi dela dio Ainhoak, «produktuak saltzen dira, baina zerbitzu aldetik asko jaitsi da». Gainera, Gipuzkoako ondoko herritik, Berastegitik, jende asko etortzen zitzaiola dio, «orain, Nafarroa itxita egoteak kalte handia egin du». Hala ere, baikor ikusten du bere burua etorkizunerako, «noizbait irekiko dute muga».



«Kanpaina hau bukatzean ez dut negukorik egingen»

ROSA LASAGA ETXEBERRIA
BIXKIAK - LESAKA



2005eko azaroaren 19an ireki zuen denda Rosak Lesakan. Kiroletako arropa eta bakeroak saltzen hasi zen batez ere. Denborarekin, eskaintza zabalitzen joan da eta moda ere saltzen du gaur egun. Hala ere, «gehien bat kiroletako arropa» saltzen duela dio. Laster erretiratuko da Rosa, «kanpaina hau bukatzean ja ez dut neguko kanpainarik egingen». Orduan, beharpenak hasiko dira, eta bukatzeko likidazioa. Negozioaren etorkizunari buruz galdetzean, «norbaitek alokatu nahi badu, ederki, eta erosi nahi badu, hobe» dio. Ez litzaioke lokala hutsik uztea gustatuko, «herria deus gabe geldituko baita; Ttipi Txartela daukat, Denok bat txartela, Toptopan sartu naiz... pena da dena bertan behera uztea».

Haur, gazte eta helduentzat kultur hitzorduak apirilean

Mihise taldearen kontzertua, 'Caminho Longe' dokumentala, Ene Kantak, erakusketa, filma eta gehiago izanen dira

TTIPI-TTAPA

Kultur eskaintzak ez du etenik. Udalak antolatutako Jose Antonio Bergararen *Arimaren arrastoak* pintura erakusketaren azken egunak dira. Igan-dera bitarte, apirilaren 11ra arte, astegunez 18:30etik 20:00etara eta asteburuan 12:00etatik 14:00etara Herri Aretoan ikus daitezke lanak.

Mihise taldea

Larunbatean, hilaren 10ean, Atekabeltz Herriguneak Usurbilgo Mihise taldearen kontzertua antolatu du.

'Caminho Longe'

Apirilaren 17an, *Caminho Longe* dokumentala ikusteko aukera izanen da Herri Aretoan. ETako militante izandako Alfonso Etxegarai 33 urte deportatua egin ondok, Euskal Herrira egiten duen itzulera kontatzen du filmak eta denbora horretan lagun izan duen Kristiane Etxaluz eta bien arteko harremanari buruzkoa ere bada. Sarek eta udalak hizketaldia ere antolatu dute eta 18:00etan hasiko da. Sa-

rarrerak bi liburu-dendetan eskura daitezke, bost eurotan.

Ene Kantak

Biharamunean, hilaren 18an, ttikienek *Ene Kantak* dantzan haurrentzako ikuskizunarekin gozatzeko aukera izanen dute Herri Aretoan. Sarrerak bi liburu-dendetan hartu behar dira.

'Plazaola eta mehatzeak'

Apirilaren 19tik 25era *Plazaola eta mehatzeak* lanabesen eta tresnen erakusketa zabalduko dute Herri Aretoan. Horren harira, apirilaren 24an, goiz osoko jardunaldia egingen dute hainbat hizlarirekin, 09:30etik 13:15era.

Haurrentzako filma

Apirilaren 24an eta 25ean, *Dragoiaren Gidaria* haurrentzako filma ikusgai jarriko dute Herri Aretoan. Denok Bat guraso elkarteak antolatu du eta 17:00etan hasiko da. Sarrerak apirilaren 16tik aurrera jarriko dituzte bi liburu-dendetan, sarrera orokorra bost eurotan eta guraso elkarteontzat lau eurotan.

80 urtetik gorako 258 lagunek hartu dute Covid-19aren aurkako txertoa

TTIPI-TTAPA

Aranon, Areson, Goizuetan eta Leitza bizi diren 80 urtetik gorako 258 lagunek hartu zuten martxoaren 23an Covid-19aren kontrako txertoa kiroldegian. 272 laguni eginga zieten txertaketarako deia eta %95ek hartu zuten hitzordua. Udalak jaki-

narazi zuenez, hitzordua hartua zuten hiru lagun ez ziren kiroldegira hurbildu eta 79 urteko beste hiruri deitu zieten haien orde txertatzeko. 35ek kotxetik atera gabe hartu zuten txertoa eta udalak antolatutako garraioarekin bost lagun hurbildu ziren kiroldegira.

LHL erronkaren lan-sarean parte hartu nahi dutenentzat izena emateko egunak

TTIPI-TTAPA

Herri inklusiboagoa lortzeko helburuari tiraka, herri lan-sarean osatzeari ekin dio LHL erronkak eta modu batera edo bestean laguntzeko prest dauden zerrenda osatu nahi du. Oraingoan, lau lantalde aurreikusituzte: mendi erronka

prestatzeko, babesleak eta zozketako opariak lortzeko, bideo-atxikimenduak lortzeko eta herrian margotze-lanak egiteko taldeak. Apirilaren 9a izanen da inprimakia betetzeko azken eguna eta LHL erronkaren sare sozialen bitartez sar daiteke inprimakira.



ERLETA ESKOLA

Zuek bai artistak!

Martxo bukaeran Erleta eskolako bost urteko ikasleak gelan landutako proiektuak jendaurrera atera eta erakusketa zabaldu zuten Herri Aretoan. Gela batekoek margolarien lanetan oinarritutako erakusketa jarriko zuten, *Gu bai artistak* izenburupean, eta beste gelakoek dinosauroen inguruko lanak erakutsi zituzten.



ERNAI

11 bikote Ernairen frontenis txapelketan

Hamaika bikotek parte hartu zuten martxoaren 20an Ernaik antolatuta egin zen frontenis txapelketan, eta horien artean, Xabat Illarregi eta Oier Goikoetxea izan ziren irabazle. Apirilaren 17an Lakuntzan egingen den bertsotramarako sarrera bana eskuratu zituzten saritzat.



Joan den martxoaren 24ko prentsaurrekoan kalitatezko hezkuntza eta herri txikiertzako eskubideak aldarrikatu zituzten.

Kezka institutuko garraio eta jangela zerbitzuekin

DBHkoen jangela zerbitzua mantentzeko eta garraio publikoa jartzeko eskatu diete institutuko gurasoek gobernari

TTIPI-TTAPA

«Araitz, Arano, Areso, Betelu, Ezkurra, Goizueta, Larraun, Leitza eta Lekunberriko gurasoak oso kezkatuta gaude Carlos Gimeno Nafarroako Hezkuntza kontseilariak Amazabal institutuko ikasleei ezarri nahi dizkien aldaketekin». Hitz horiekin hasi zuten joan den martxoaren 24an institutu atarian egin zuten prentsaurrekoa. Leitzakoa jangela zerbitzua duen institutu bakarra dela argudiatuta, kontseilariak datorren ikasturtean DBHko ikasleei jangela zerbitzua kenduko diela jakinarazi die. Baina «gurasoak ez gaude batera ados».

Hezkuntza Departamentuak «alde bakarrez» hartutako erabakia izan dela diote eta «penaturik» daude, «ez zaiolako ikas komunitate osoari bene-

tako aukerarik eman gaiari buruz lasai hausnartzeko, eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko».

«Herri guztietako alkateen babes» dutela nabarmenduz, argi dute «governuak jangela zerbitzua diruz laguntzeko jarraitu beharko lukeela»: «Halako jangela baten erabiltzai-

le 'bakarrak' izateagatik gure seme-alabak ez dira pribilegiatuak; alderantziz, derrigorrezko eskolak jasotzeko etxetik kanpo ordu asko (8-9 ordutik gora) eta errepidean oso bide luzeak (50 kilometro baino gehiago) egiten dituzten nerabeak besterik ez dira».

Batxilergoaren garraio zintzilik

Gehiago ere bada. Joan den asteko prentsaurrekoan, «Hezkuntza Departamentuak bigurutzeko batean jarri gaituela» adierazi zuten gurasoek: «DBH eta Batxilergoko ikasleen ordutegiak bateratzen ditu institutuak, edo Batxilergoko inork ez du euren herrietaraino garraiorik izan. Lehengo kasuan DBHkoen ga-

rraioa erabiltzeko aukera izanzen lukete, beti ere, haien izateko eserleku liberrik bago. Beraz, ordutegiak bateratuta ere, ez digute bermatzen ikasle guztiak etxera garraiatuak izanzen direnik».

Hori «txarra eta txarraren artean aukeratzea» delakoan daude gurasoak: «Bazkaldu gabe eskolatik aterako diren DBHko ikasleak euren herrietara egun baino lehenago ekartzeak Batxilergoko ikasleak kaltetuko lituzke, baita garraioaren beharrik ez duten Leitzako ikasleak ere». Eta zergatik? «Bada haien eskola orduak murriztuko liratekeelako. Noiz eta unibertsitatara sartzeko azterketak prestatzeko ikasturteetan daudenean».

Egoera ikusita ikasleen «ongizatearekin genuen kezka areagotu» zaie gurasoei, «ordutegiak bateratzeko motibazioa logistikoa delako, eta ez pedagogikoa». Institutuak gurasoen artean egindako galdeketa ere mahai gainean jarri zuten aurreko asteko agerraldian: «%90 aldaketaren kontra dago».

Txibiteri eta Gimeneri mezua

Hori horrela, gobernari «Hezkuntza Departamentuak dirua aurrezteko hartzen dituen erabakien ondorioak ikasleek jasan behar ote dituzten» galdetu zioten prentsaurrekoan. Eta Maria Txibite lehendakariari eta Carlos Gimeno kontseilariari «herri hauen errealitatea aintzat hartzea» eskatu zioten: «zerbitzu publiko gutxi, haletara iristeko distantzia luzeak, errepide bihurriak, biztanleriaren zahartzea, despopulazioa... Begira ezazue mendi, baso eta zelai berde hauei eusten bizi diren herrietarrik; ikus itzazue haien beharrik, batez ere, gaztetxoek. Mantez itzazue orain arteko oinarriko zerbitzuak –DBHkoen jangela zerbitzua– eta jar itzazue berriak –garraio publikoa–». Areago: «'Bakarrak' izateak ez gaitzala azkenak izatera kondenatu».

Sinadura bilketa

Garraio publiko duin bat jartzearen alde *Change.org* atarian hasitako sinadura bilketarekin aurrera jarraitzen du institutuko guraso elkarteak. Otsailean abiatu zuten bilketa eta lerro hauek idazterakoan 900 sinaduratik gora bilduak zituzten eta oraindik ere izanzen da

horretarako aukera. «Garraio publiko duina» nahi dute gurasoek, «gure eskualdean ez baitago garraio publikorik, eta beraz, nor arduratu da Batxilergoko ikasleen joan-etorriez orain arteko ordutegiarekin jarraituz gero? Ezin digute xantxia hori egin».

Bazkide egiteko baldintzak aldatu ditu Umore Onak

Hemendik aurrera bazkide batek elkartearen utzi nahi badu beste edozein proposatu ahal izanen du sosik ordaindu gabe

TTIPI-TTAPA

Estatutuaren aldaketa batzuk egin ditu Umore Ona elkarteak. Zuzendaritzak joan den martxoaren 27an egindako batzarrean aurkeztu zituen bere proposamenak eta bildutako 29 bazkideek aho-batez onartu zituzten.

Besteak beste, bazkide egiteko prozeduran aldaketa egin dute, eta Miel Joxe Lekuona elkartearen lehendakariaren arabera, «aldaketa nabarmena» izanen da. Orain arte senide baten heriotza tarteko bazkide egin zitekeen. Hemendik aurrera, ordea, «bazkide batek borondatez elkartearen utzi eta bere ordez beste edozein sartzea proposa dezake, sosik ordaindu gabe». Erabakia, idatziz, beranduenez urtea bukatu baino bi hilabetelehenagotik jakinarazi behar du zuzendaritzari, eta horren berri izandakoan elkartearen ohean jarriko dute hilabete batez nahi duenak alegazioak aurkez ditzan.

Aldaketa horren atzean gaur egun elkartearen bazkide diren 254 lagunaren artean, «bazkide askok elkartearen ez dutela ezertarako erabiltzen» dago, «pizkanaka baja ematen hasiko dira...». Aldi berean, «baja hori estaltzen dutenek behar bada askoz gehiago erabiliko dute elkartearen». Eta «erabilera jaisten» ari dela ikusita, neurria «oso ongi» etor daitekeela uste du Lekuonak.

Bai besteen ordez sartu nahi dutenen kasuan, bai bestela bazkide egin nahi dutenen kasuan, ohean hilabete batez jarriko dituzte proposamenak, bazkideek alegazioak



Elkartean egindako otordu bat.

aurkezteko aukera izan dezaten. Hori aztertzeaz zuzendaritza taldea arduratuko da eta azken hitza urteko batzar orokorrean hartuko dute: «lehen, bazkideen bozketan hirutik biren babesa behar izaten zen; orain, berriz, botoen erdia baino bat gehiago behar du alde».

Mendiko aseguria


Umore Ona elkartearen izenean mendiko aseguria egiteko aukera ere eman nahi du elkarteak eta horregatik aldatu du bigarren artikulua.

Batzarren deialdiak

Urteko batzarren deialdiak egiteko bidea ere aldatu du Umore Onak. Lekuonak TTIPI-TTAPARI kontatu dionez, «artikulu zaharraren arabera, urteko batzarren deialdiak idatziz, gutun-azalean sartuta eta bazkide bakoitzari banaka emanez jakinarazi behar ziren». Banaketa, ordea, zenbaitetan arazo-iturri izan omen da, besteak beste, «bazkide batzuk herritik kanpo bizi direlako». Horri soluzioa eman nahian, hemendik aurrera «elkarteko oholak eta bestelako bitartekoak erabiliko ditugu deialdien berri emateko, hala nola, sare sozialak».

Elizegi eta Mateorena txapeldunorde

Partida borrokatu baten ondoren, Baztango pilota txapelketan txapela lortzeko atarian gelditu ziren Egoitz Elizegi herritarra eta Leitzako Aurrea eskolako Eki Mateorena. Kadeteen A mailako finalean 13-18 galdu zuten Goldarazena eta Antimasberesen aurka.



Txikirekin tarte umoretsuaz gozatu dute herritarrek

Herriz herri dabilen Ion Martinez Txiki Goizuetan izan zen martxoaren 27an, 40 urte eta aldapan behera niek izeneko bakarrizketarekin. Belaunaldi horri barre eginez, tarte umoretsuaz gozatzeko aukera izan zuten udaletxeko ganbaran bildu ziren herritarrek.



Mikel Zabalza senideak, dokumentaleko irudi batean. NON DAGO MIKEL?

Mikel Zabalza kasuari buruzko dokumentala ikusgai apirilaren 17an

TTIPI-TTAPA

Mikel Zabalza desagertuaren eta heriotzari buruz mintzo den *Non dago Mikel?* dokumentala ikusteko aukera izanen dute herritarrek apirilaren 17an, larunbatarekin. Ez hori bakarrik. Dokumentalaren zuzendariak, Amaia Merino eta Migel Angel Llamas Pitu, bertan izanen dira. Hitzordura joan nahi dutenek sarrerak Estankon izanen dituzte salgai.

Honela dio dokumentalaren sinopsiak: «1985eko azaroa. Guardia Zibilak, terrorismoaren kontrako operazio baten

barrenean, Mikel Zabalza atxilotu du, autobuseko gidari gazte bat, beste batzuekin batera. Gainerako gazteak askatu dituztenean, tortura basatiak jasan izana salatu dute. Baina Mikel falta da. Agintarietara egin duela esan duten arren, bizirik aurkitzeko esperantza ahuldu ahala, Euskal Herriko kaleetan oiheratu bat adituko da gero eta ozengorago: Non dago Mikel?».

Ion Arretxe, Idoia Aierbe, Garbiñe Garate eta Mikel Zabalza senide eta ilobak elkarrizketatuz osatutako 80 minutuko dokumentala da.



Bakoitzak bere esperientzia partekatzeko aukera izan zuen martxoaren 21ean.

11 lagun bildu dira Aranoko hazien tailerrean

Dagoenean bonbon taldeak oraindik ez du zehaztu zein izanen den hurrengo saioa

AINHOA ANSA

Piketeak egiten ikasteko otsailko hitzorduaren ondoren, Dagoenean bonbon taldearen martxoko saioan bertako haziak eta hazitegiak izan zituzten hizpide.

Martxoaren 21ean Abañoko lagunek beren hazitegia egiteko auzolan deia egin zuten

eta hazien inguruan bakoitzak zekiena eta zuena elkartrukatzeko aukera polita izan zen. 11 lagun elkartu zituen ekintzak. Kajoia egin, behar zuten lekuan jarri, lur, ondar eta ongari nahikoz hornitu, eta hazitegiekin bakoitzak zuen esperientzia konpartitzen aritu ziren bertaratutakoak.

Batzuk esperientzia gehiago, besteak gutxi... Zer erakutsia eta zer ikasia elkarren ondoan jarrita. Hamaiketakoarentzat tarte ere izan zen eta tertuliarekin jarraitu zuten orduan ere. Bakoitzak bere etxean tailerrari jarraipena emateko garaia izango da orain... Hurrengo tailerra zein izanen den erabakitzeko dago oraindik.

'Zaintza pandemia garaian'

Bestalde, martxo bukaerako asteburuan, *Zaintza pandemia garaian* erakusketaz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Izen bereko lehiaketara aurkeztu ziren 17 argazkiez gain, 3 eta 4 urteko umeek egindako marrazkiak ikusgai jarri zituzten elkarteko arkupean.



Haurrak erakusketa ikusten.



Jauntsaratsen eginiko saioa.

Mimukairen hurrengo saioa apirilaren 22an Goizuetan

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 25az geroztik sei saio egin dituzte Mimukai proiektuaren barne egiten ari diren parte-hartze prozesuan. Orain artekoak Leitza, Jauntsaratsen eta Lekunberrin izan dira eta hurrengoa, apirilaren 22an izanen dena, Goizuetan izanen da. Udal ordezkariak gonbidatu dituzte eta udalen parte-hartzeaz gain, Mimukaik izan beharko lukeen izaera juridikoa izanen dute hizpide, 17:00 Goizuetako udaletxeko Ganbaran.



UTZITAKOIA

Zuhaitz landaketa egin dute Areson

Aresoko Guraso Elkartearen ekimenez, joan den martxoaren 17an, Elutsarko parajeen zuhaitzak landatzen aritu ziren haurrak eta gurasoak. Kuadrilla ederra bildu ziren eta hitzordua borobiltzeko futbol-partida ere jokatu zuten: gurasoak haurren kontra aritu ziren. Nork irabazi ote zuen partida?

Carlos Arriazuren kontzertua igandean Elizondon

Arizkunenea kultur etxean izanen da 19:00etan eta gonbidapenak aitzinetik eskuratu beharko dira

TTIPI-TTAPA

Baztango mitologian eta naturan, arbaso eta ohituretan, oinarritutako piano kontzertua emanen du Carlos Arriazuk apirilaren 11n, igandean. Bere amari eskainitako emozio karga handiko kontzertuak, melodia intimoen bidez, antzi-

nako alegia eta elezaharrak transmititu nahi ditu.

Kultura Batzordeak antolatutako emanaldi hori Arizkunenea kultur etxean izanen da, 19:00etan. Kontzertuaz gozatzeko gonbidapenak 18:30etik aitzinera jaso ahal izanen dira.

Ikastolaren argazki erakusketa ikusgai hilaren 10etik 25era

Ateak ireki zituenetik 50 urte bete direla ospatzeko, ikasturte honetan hainbat ekitaldi antolatu ditu Baztan Ikastolak. Larunbatetik aitzinera, ikastolaren historiaren errepaso egin eta oroitzapenetan murgiltzeko, argazki erakusketa irekiko dute. Apirilaren 25era arte ikusi ahal izanen da, Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Astelehenetik ortziralerara 17:00etatik 20:00etara eta asteburuetan arratsalde ez ezik goizez ere (11:00etatik 13:30era arte) bisitatu ahal izanen da.

Mendekotasuna dutenak zaintzeko formakuntzak

Aitzineko TTIPI-TTAPAN azaldu bezala, apiriletik aitzinera mendekotasuna dutenak zaintzeko bi ikastaro emanen dituzte Elizondoko Lanbide Eskolan (apirilaren 14tik ekainaren 2ra eta apirilaren 16tik maiatzaren 13ra). Bata zein bertzea arratsalde (15:30etik 21:00etara) izanen dira eta izena ematerako orduan langabetuek izanen dute lehentasuna. Guztira, gehienez ere, 15 lagun onartuko dituzte. Informazio osoa Nafar Lansareren webgunean dago eskuragarri.



ELIZONDOKO LANBIDE ESKOLA

Zaintza ikastaroa Elizondon

Irailetik otsailera bitarte, Baztan-Bidasoko 15 emakumek menpekotasuna duten pertsoneri arreta soziosanitarioa emateko prestakuntza jaso zuten. Ikastaroa Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bultzatu zuen eta Elizondoko Lanbide Eskolan eman zuten. 370 orduz teoria landu eta 80 orduz enpresetan praktikak egin zituzten.



JM ONDIKOL

Gaztetxeko pintada faxisten kontra

Martxoaren 21ean Baztango Gaztetxean pintada faxistak agertu ziren. Gazte asanbladaren ustez pintaketa horien «helburua ziurrenik ez zen faxismoari gorazarre egitea, gaztetxeari min eman diezaioketen pintadak egitea baizik». Herritarrek hori gaitzesteko elkarretaratzea egin zuten Merkatu Plazan.

BRIKO
LIMPIEZA, SL

MOTA GUZTIETAKO
GARBIKETAK:
etxeak
landetxeak
lokalak
komertzioak
enpresak
...

konfidantzazko zerbitzua

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

5Garen hedapena gibelatzeko eskatu du udalak

Onarturiko idatzian 5Gari buruzko hainbat kezka biltzen dira, berteak berte, ingurumenarekin eta klima aldaketarekin lotuak

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 25ean egindako osoko bilkuran Baztango Udaltzako 5Garen hedapena gibelatzeko mozioa onartu zuen EH Bilduren aldeko sei bozekin, Navarra Suma eta Geroa Bairen aurkako bortzekin eta Baztango Ezkerraren bi abstentzioekin.

Ingurumena eta klima interes ekonomikoaren gainera

Akordioan gaiari buruz dagoen «eztabaida publiko eskasa eta osasunaren, ingurumenaren eta klimaren inguruan dagoen azterketa independenteen gabezia» aipatzen dira. Horregatik, teknologia horri buruzko «eztabaida pluralista» galdegiten dute, «gardena, eta ez interesetara lotua».

Aipatutako idatzi hori Akordioak Telekomunikazioen Lege Orokorren aitzinproiektua baztertzen du, udal-autonomiaren arka egiten duelako, telekomunikazio sareen hedapen, kontrol eta jarraipenari dagokionez. Aldi berean, zuhertasun-printzipioaren arabera, udalek jokatzeko eskubidea izatea aldarrikatzen du.

Modu berean, Telekomunikazio Legearen edozein aldaketa osasun, ingurumen eta klima irizpideak kontuan hartuta egiteko eskatzen dute idatzian, eta «ez inte-

res ekonomikoetara makurturik».

Kezka andana

Udalak onarturiko idatzian kezka hauek plazaratu dituzte: «5G sarearen hedapenak ez du zuhertasun-printzipioa eta ingurumen azterketa kontuan hartzen; energia kontsumoa handitzen du, klima aldaketa larriagotuz; 5G dakarren zahartze teknologikoak mineralen erauzketa handitzea dakar eta zabor elektronikoa gehiago ere bai; behar berriak sortzen ditu, arraildura sozial eta digitala handituz; 4.0 nekazaritza eta abeltzaintza intentsibo eta kutsatzailearen erreminta da; kontrol eta zaintza sozialerako erabilera du; oraingo menpekotasun teknologikoan eta hortik heldu diren arazoetan sakontzen du; gainera eztabaida soziala eta herritarren parte hartzea saihestu dira eta Telekomunikazioen Lege Orokorren aitzinproiektuak telekomunikazioen arloan udalen ahalmen pizarrak kentzen ditu».

Baztanen onarturiko mozioaren idurikoak Europako hiri eta hainbat eskualdetan eztabaidatzen eta onartzen ari dira: Lyon, Lille, Bordele... Frantzia; Belgikako Bruselako eskualdean, Suitzako Genova eta Neuchâtel, e.a.



UTZITAKOA

Irlandar doinuak Iruritan

Baztango musikariek osatutako The Drunken Barrels taldeak kontzertua eman zuen martxoaren 21ean Irurritako Gizarte Bilgunean. Irlandar doinu artean murgildu ziren entzuleek Kultura Batzordeak antolatutako kontzertu gustagarriaz gozatu ahal izan zuten.



UTZITAKOA

Kantuz Almandozen apirilaren 18an

Martxoan Irurritako karrketan kantari aritu zirenek apirilaren 18an, hurrengo igandean, Almandozen elkar ikusteko aukera izanen dute. Izan ere, Baztan Kantuzek hurrengo hitzordua bertan zehaztu du. Ohi bezala, eguerdian, 12:00etan, herriko frontoitik abiatu eta ordubetez karrkaz karraka ibiliko dira.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE abokatua



Dibortzioak, herentziak, alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
Santiago, 59 2C ELIZONDO

ANZABAL inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Pello Iriarte da Iruritako alkate berria

Otsailean Arizkungo alkatea izendatu ondotik, Irurita zen alkate gabe zegoen bakarra. Orain, guztiak izendatuak dira

TTIPI-TTAPA

Pello Iriarte Zelaieta da Iruritako alkate berria. Martxoaren 27an egin zuten batzarrea Iruritako Gizarte Bilgunean eta hautagai bakarra zenez, batzarrek ez zuen luze jo. Batzarrean 17 lagun elkartziren eta denek ontzat eman zuten Pello Iriarte izatea Iruritako alkate hurrengo bi urteotan.

Gainerako hamalau herrietan ere badituzte alkateak: Elbeten Imanol Juanikotena, Erratzun Kaiet Itoitz, Oronoz-Mugairin Jorge Oteiza, Zigan Joxean Etxeberria, Almando-



Pello Iriarte, batzarrean.

zen Pello Sarratea, Azpilkuetan Aitor Iturralde, Anizen Kristina Fernandez, Lekarozen Ernesto Prat, Amaiurren Ixabel Aleman, Elizondoko Aitor Bazterrika eta Arizkuneko Imanol Etxeberria dira izendaturikoak.

'Parke naturala, tokiko garapenerako tresna?' mahai ingurua hilaren 16an

Parke naturalaz eta tokiko garapeneraz solastatzeko mahai ingurua izanen dute apirilaren 16an, larunbatean, Iruritako Gizarte Bilgunean, 19:00etan (sarrerak Arizkunenean daude eskuragarri). Battite Laborde, Euskal Hirigune Elkargoko mendiko kontseilari delegatua eta Euskal

Mendia eskualdeko parke naturaleko zuzendaritza batzordeko burua, Andde Sainte-Marie, Akitania Berria Eskualdeko Kontseilaria eta Mendigune-Artzaingo delegatua, eta Pablo Muñoz Trigo, Nafarroako Gobernuako Ingurumeneko Zuzendari Nagusia, izanen dira hizlari.



JM ONDIKOL

80 urtetik goitikoei txertoa

Baztanen bizi diren 80 urtetik goitiko herritarrei Pfizer etxearen txertoa paratzen aritu ziren martxoaren 29an Elizondoko Baztan pilotalekuan. Elizondora 560 lagunendako dosiak ekarri zituzten, txertaketa «arazorik gabe» joan zen. Lehenbiziko dosiaren ondotik, apirilaren 19an izanen dute bigarrena hartzeko aukera.



JM ONDIKOL

Bultza euskaltegiak, bultza euskara

Aurten Korrikarik izan ez dugun arren, *Bultza Euskaltegiak Bultza Euskara* ekitaldia antolatu dute. Hainbat herritan elkar-tu ziren martxoaren 28an, Korrika akituko zen egunean. Elizondoko plazan ere bildu ziren. *Euskal Herrian Euskaraz* eta *Bultza Euskaltegiak* bertso-rapa abestu zituzten.

MARMOLES SOULE

www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43

www.oteizaarquitectos.com

Apote Karrika 8 (Maskonea)
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
20004 - Donostia

DESIGNER
CERTIFIED
PASSIVE HOUSE
DESIGNER

@ oteizaarquitectos

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Martxoan bideak garbitzen aritu dira auzolanean. UTZITAKOAK

Elizondo eta Elbete artean ibilbide bat egin nahi dute

Oinaska inguruan egin nahi dute ibilbidea eta udarako prest egotea nahiko lukete

TTIPI-TTAPA

Elizondoko eta Elbeteko herriek, Baztango Udalaren laguntzaz, Oinaska inguruan ibilbide turistiko bat egokitze ekimena abiatu dute. Proiektu horren bidez, historikoki garrantzitsuak diren hainbat gune lotu eta ikusgarritasuna eman nahi diete. Lehenbiziko lana bideak garbitzea izan da eta horretarako auzolanak egin dituzte martxoan.

Ibilbidea eta interesgune nagusiak

Elizondoko alkateak, Aitor Bazterrikak, adierazi duenez, ibilbidea oraindik «zehaztu gabe» dago. Hala ere, buruan dutena «Elizondoko plazan hasi eta akituko den buelta zirkular bat» da. Tartean, «Oinaska izanen litzateke lehenbiziko interesgunea, baserritarrak mezara joaten zirenean zapatak garbitzen zituzten tokia». Hortik goiti kisulabea, ur-jauzia eta meategiak daude: «ur-jauziak udan ez du urik izanen baina meategi batzuetan sartu ahal izanen da...».

Horrez gain, Autxikoborda azpian «Elizondo eta Elbeteko begiratoki bat egiteko aukera» ere mahai gainean dute, «bista zoragarriak daude eta». Hortik bertze mina batzuk bisitatu eta GR bide-tik herrira bueltatzeko aukera izanen litzateke. Norabide bakarrek ibilbidea izanen da eta, aitzineratu dutenez, seinalizazio argia izanen du.

Bazterrikak nabarmendu duenez, proiektu honek bi ardatz nagusi ditu: «batetik, herritarrek egiten duten auzolana eta bertetik, Baztango Udalaren laguntza». Hortaz, «Elbeteko alkate den Imanol Juanikotenari egin duen elkarlanagatik eta hurbildu diren herritar guztiei eman duten laguntzagatik» eskerrak eman nahi izan dizkie. Bide batez, Baztango Udala ere proiektua aitzinera eraman ahal izateko «ezinbertzekoa» dela gaineratu du: «azken batean Baztango Udala makineria alokatzeko eta bertzelako lanetarako kostuak ordaintzeko sustenguz garrantzitsua da guretzat».



Ikusmina piztu zuen Riechmannek Iruritan eman zuen solasaldia.

'Soiltasunaren indar eraldatzaileaz' mintzatu da Jorge Riechmann Iruritan

TTIPI-TTAPA

Jorge Riechmann filosofo espainiarrak hitzaldia eman zuen Baztanen martxoaren 27an. Elizondoko Arizkunenean izan behar zen hasiera batean, baina edukiera ttikiegi gelditu zenez, Iruritako Gizarte bilgunera mugitu zuten solasaldia.

Energia Onak eta Hazitik Hoziek antolatu zuten mintzaldia, udalarekin batera. Bertan, Riechmannek bizitzen ari garen klima larrialdi eta krisi ekosozial honetan beharrezkoak diren balioei buruz solas egin zuen. Solasbidearen

ardatzak nahikotasuna, oparotasuna, joritasuna eta eskasia izan ziren, «aski izatearen zentzua, ez norberaren koherentzia neurtzeko, oinarri kultural bezala baizik. Horren gainean, zuzena eta bidezkoa izan den bizitza nola eraiki daitekeen gogoetatu zuen lurra xehatu gabe, gainerako lurraldeak eta gorputzak arpilatu gabe, eta geroa irentsi gabe». Sistema kapitalistaren gero eta gehiago eduki nahi izatearen logika kulturalarekin, mundua konponbide zaileko alderdi aunitz dituen krisia bizitzen ari dela baieztatu zuen.



UTZITAKOAK

39. eskuz binakako pilota txapelketa

Almendozko eta Iruritako Aranabia pilotalekuan jokatu zuten martxoaren 28an Txarutak antolatutako Baztango 39. eskuz binakako pilota txapelketako finalak. 200 bat bikote hasi ziren urrian eta behartutako geldialdiaren ondoren, Nafarroako pilotariak aritu dira otsailetik honat. (+ info 47. orrian)

«Berriz ere komun publikoen proiektuari heldu nahiko genioke»

IMANOL ETXEBERRIA ARIZKUNGO ALKATEA

Martxan hasi orduko suteen kontra lan egin behar izan zuten Imanol Etxeberria alkateak (Arizkun, 1984) eta kargudunek. Orain, poliki-poliki, duela urte batzuetako proiektuak hartu nahiko lituzkete

TTIPI-TTAPA

Herriak hala aukeratuta, otsailan hartu zuen ondoko bi urteetan Arizkungo alkate izateko ardura Imanol Etxeberriak. Orain, «hartutako konfiantza» arizkundarrak kontent utziz itzuli nahiko lieke. Eta horretarako, bertze hamabortz lagunekin batera, herritarrek egindako eskariak asebetetzeko lanean hasia da. **Nola animatu zinen alkate gisa aurkeztera?**

Bi batzarretan inor agertu ez zela ikusita, talde bat arduratzen eta gure artean honi buruz solastatzen hasi ginen. Inork ez zuen hasieran bere izena alkatetzarako eman nahi eta azkenean nik eman nuen pausoa.

Hasieran inor ez eta gero bi aurkeztu zineten. Nola bizi izan zenuten hori herrian?

Jakin-mina sumatu zen, giro polita zegoen herrian, bozketan egunean zer gertatuko zen ikusteko esperoan zegoen jendea...

Inoiz herrian egin behar izan da bozketarik alkatea aukeratzeko?

Duela urte andana bi hautagai izan ziren. Orduan Karlos eta Maria Isabelen artean aukeratu behar izan genuen herritarrek eta lehenengoa gailendu zen nagusitasunez. Hala ere, bi hautagai izatea ez da batere normala, nahiko lan bat aurkeztearekin azken urte hauetan.

Boto guztien %98 lortuta alkate aukeratu zintuzten. Erantzun hori espero zenuen?



Imanol Etxeberriaren arabera, herri ttikia baina bizia da Arizkun. UTZITAKOIA

Inondik inora ez nuen botoen %98 espero. Azkenean denak ez gara denen gustukoak, baina garbi ikusi zen herritarrek niregan konfiantza gehiago zutela. Egia erran sorpresa polita izan zen emaitza hori ikustea, bozkatzerajende nahikotxo bildu zen, eta pozgarria da beraien konfiantza jasotzea. **Zein izanen dira zure ardurak?** Egiteko haundiena herriaren eta udalaren arteko bitartekari lana izaten da.

Talde ederra osatu duzue...

Talde ederra eta anitza sortu dugu bai. Ea modu honetan alkatetzari jarraipena ematen diogun eta bi urtez bi urte geroen artean lekukoa pasatzen dugun! Hori da intentzioa.

Gerora, batzuk lantaldeetik atera eta berriak sartuko dira. Orain hasmentan 16 laguneko lantaldea gara.

Ardurak banatu dituzue?

Talde koxkorra izanik, lau lantalde sortu ditugu. Batzuek herriko eta auzoetako urak koordinatuko dituzte; bertze batzuk auzolanez arduratuko dira. Hirugarren talde bat pista eta bideen egoeraz arduratuko da eta azkena sor daitezkeen proiektuez eta martxan daudenez.

Azken bi urteetan Francisco Jose Lakar izan da alkate. Haren lanari segida emanen diozue?

Lan talde berria izanik, hutsetik hasi gara. Duela urte batzuk martxan jarri zituzten proiektuak

tuak esku artean hartuko ditugu eta poliki-poliki hasiko gara. **Zein izan da lehenbiziko lana?**

Martxan hasi bezain fite, herriko lurretan izandako suteen kontra lanean ibiltzea tokatu zitzaigun. Horren ondorioz, kaltetuekin hartu-emanen gabiltza, ondotik udalera kalteen zenbatekoa eramateko. Zenbatekoa esku artean izandakoan, udalari kaltetuei laguntzeko eskaria eginen zaio.

Orain arte herrian egin dena eta egiteke dagoena ikusteko aukera izan duzue?

Duela urte batzuk komun publikoen proiektua zegoen martxan. Azken aldia geldirik egon da eta gure intentzioa berriz ere martxan paratzea da. Ea egunen batean Arizkunen komun publikoak ezagutzen ditugun! Bertzalde, medikuaren etxea dago, herriak kudeatzen duena. Hau udalak herriari urte andana baterako utzi zion eta hor hainbat gauza egiteko aukera ere badarabilgu buruan.

Epe motzera begira, zer uste duzu egin beharko litzatekeela herrian?

Gure esku egonez gero... aunitz! Baina udalak du indarra eta guk deus guti egiten ahal dugu.

Azpiegiturak hobetzea eta inguruak txukun mantentzea izaten da arduratuko bat... Horretarako auzolanak egiten dira herrian?

Herrian auzolanak egiteko ohitura badago bai. Oraingoz medikuaren etxean mantentze lanak egiteko urte osorako egutegia lotu dugu. Gerora ere auzolanerako deialdi gehiago eginen dira bideak eta pista garbitzeko eta konpontzeko, herria garbitzeko...

Zer behar ikusten dituzu herrian?

Herrian barna pasatzen diren ibilgailuen abiadura modu batean edo bertzean murriztuaztea. Plaza ingurutik abiadura dezentean pasatzen dira eta azkenean sustoren bat izan dugu. Horrez gain, zor historiko bat dago Aritzakun auzoarekin. Bi naturgune daude paraje horietan, auzokideak, baserriak, nekazariak... Eta ikaragarritzko beharra dago bidea behingoz eta behin betiko moldatzeko.

Udalak 40.000 euro erabiliko ditu euskara sustatzeko

Solaslaguna egitasmoa izanen da diru gehien jasoko duena, 7.700 euro zehazki

TTIPI-TTAPA

Euskara Sailak Baztanen euskararen normalizazioa aitzinera egiteko aurtengo plan-gintza osatu du. Tokiko Gobernu Batzordeak aurreikusitako programa onartzea erabaki du.

18.500 haur eta gazteen aisialdian euskara sustatzeko

Euskararen erabilpena sustatzeko programaren zenbait jarduera bertze toki entitate batzuekin elkarlanean egitea proposatu du Euskara Sailak. Onartutako 40.000 euroko aurrekontuaren barnean, 18.500 euro haur eta gazte-txoen aisialdian euskara sustatzeko erabiliko dira. Udako jostaldiak, bertsolaritza irakaskuntzak eta EusLider proiektuak izanen dira diru gehien jasoko dutenak.

Helduen euskararen erabilera eta sustapenak 12.300 euroko aurrekontua jasoko du. Solaslagun egitasmoari eskainiko zaio gehiena, baita ahalduzko solasaldi eta tailerrei eta euskara zero-osalaritzari. Euskararen susta-

penari merkataritzan 1.000 euro esleitu zaizkio. Gainerako 8.200 euroak bertzelako sailei emanen zaie, bertzeak bertze, Euskaraldia, bideo ekoizpena, Etxepare saria, karrika neurketa eta udaleko langileen euskalduntzea.

Solaslaguna

Solaslagun mintzapraktika egitasmoaren helburua euskaraz aritzea da. Talde ttikietan elkartzen dira parte hartzaileak astero, gutienez ordu bateko tartea eskaintzeko euskaraz solas egiteari. Bi rol nagusi daude talde hauen barnean; bidelariak eta bidelagunak. Bidelariak euskara praktikatzeko beharra duten pertsonak dira; konfiantzako talde ttikietan lotsa galtzea eta euskaraz mintzatzeko ohitura hartzea dute helburu. Bidelagunak euskaraz ongi aritzen diren pertsonak dira, bidelariei laguntzen dietenak.

Diru kopuru handiena jasoko duen programa da hau, 7.700 euroko diru-laguntza jasoko baitu 2021ean Baztanen.



200 bideo baino gehiago aurkeztu ziren lehiaketara. Argazkian Intziarte.

Olaia Intziarteren eta Jokin Pinatxoren lanak maketa lehiaketako bigarren fasera

TTIPI-TTAPA

Gazteak lehenbizikoz cover lehiaketa irekia antolatu du aurtun. Lehiaketaren helburua gazteak, bertsioren bitartez, musikara gerturatzea da eta horrerako bertsiotzat kantzera animatzeko deia egin diete (gustuko duten txokotik eta jotzen dakiten musikatresnez lagunduta).

200 bideo baino gehiago

Parte-hartzaileek martxoaren 16ra arteko epea zuten bideoak bidaltzeko eta, jakinarazi dutenez, guztira 200 bideo baino gehiago jaso zituzten. Maialen Gurbindok (Chica Sobresalto), Iñigo Etxezarretak (ETS) eta Leire Letuk (abeslaria, cover egilea eta GU saioko kolaboratzailea) osaturiko epaimahaiak bigarren fasera pasatzeko 20 bideo aukeratu zituzten, horien

artean Oronoz-Mugairiko Olaia Intziarteren *Saiatzen naiz* eta Berako Jokin Pinatxoren *Begitara begira* kantak (bideoak www.eitb.eus atarian Gaztea cover atalean ikus daitezke).

Finala

Martxoaren 31n, asteazkean, entzuleek gehien bozkatutako bi lan eta epaimahaiak aukeraturako bi finalera pasatzekoak ziren. Lerro hauek idazterako orduan finalistek izenak argitara ematekoak ziren.

Lau finalistek final handia apirilaren 15ean, hurrengo ortzegunean, izanen da eta bi sari izanen dira: epaimahaiaren saria (2.000 euroko erosketa txeketa *txirula.com* dendarako) eta entzuleena (toki berean gastatzeko 1.000 euro).

Turisten etorrerarako neurriak hartzen hasiak dira udala eta Erratzu herria

Erratzu eta Xorroxin ur-jauzian biltzen den turista mukurua ikusita, udalak eta Erratzu herriak Aste Santurako neurriak hartu zituzten: trafikoa erregulatzeko hiru kontratazio egin zituzten eta turistak arrazoirik gabe herrian sartzea saihestu zuten. Modu berean, Goros-

tapolo eta Iñarbileren turistak autoak pasatzea galarazi zuten; herriko sarreran dagoen Ubidea etorbidean utziaraziz. Aste Santuko neurri horiek behin-behinekoak izan diren arren, udalak udarako erreserba-plataforma eta azpiegitura berriak egin nahi ditu.



lazko udan Xorroxingo ur-jauzian turista aunitz bildu ziren.



Etxeaundiko biltegian egin zuten liburuaren aurkezpena. MARIFA ETA KORO

'Sugarren mende' liburuaren aurkezpen jendetsua

Martxoaren 27an egin zen Etxeaundiko biltegian, Asisko Urmeneta egilea bertan zela

MARIFA ETA KORO

Martxoaren 27an Asisko Urmenetaren eta Helena Xurio herritarraren *Sugarren mende* liburuaren aurkezpena egin zuten herrian, eta aukera hau hausnarketa bat egiteko ere baliatu nahi izan da.

Hausnaketak bi bide hartu zituen. Alde batetik, garai haietan sorgin ehizaz kolpatuak izan ziren herrien memoria berreskuratzea: toki horietako gehienetan orain jakiten ari dira zer gertatu zen beren herrietan, eta interesa erakusten ari dira gertaerak ezagutzeko, eta horretan lan egin nahi dute.

Bertzalde, gaur egun dugun informazio zabalaren arabera, 'sorgina', 'akelarrea', 'sorgin ehiza'... eta halako kontzeptuen erranahiak bertze gisara planteatu behar direla ikusi dute eta horren harira, lan egin nahi dute.

Etxeaundiko biltegian

Aurkezpen honetara jende kopuru polita espero zenez (60 bat lagun elkartu ziren), eta museoko aretoa ttiki gelditzen zenez, ezohiko toki batean egin zen: Etxeaundiko biltegian. Toki berezia eta xarma bitxiko lekua.



Altzateneko heiairen teilatutik uralita kentzen. MARIFA ETA KORO

Herriko historian garrantzia duen Alzateneko berritze lanak hasiak dituzte

MARIFA ETA KORO

Martxoaren 12an hasi zituzten Alzateneko berritze-lanak. Heiarekin hasi ziren, teilatua uralitazkoa zuelako, eta horren erretiratzea arrisksua delako. Goiz osoa egon zen Karrikamakur mozturik, langileek beraien lana behar den beza-la egiteko.

Aipatzekoa da Alzateneko Etxenike-Sagartzazu familia herriko historiaren parte bat izan dela: beraien etxean osatua zeukaten eta jatera ere ematen zuten. Gero 1950eko hamarkadan Joxe eta Mariak Herriko Etxea hartu zuten enkantean, eta beranduago, 1960ko hamarkadan, beraien semea zen Anjel lan berean aritu zen.

Maria Sagartzazu, naturari eta herriko ixtorioei lotutako pertsona zen: onddo bila ateratzen zenean, ikustekoa zen

berak ekartzen zituen onddo eta xixa klase guztiak. Bertzalde bera izanen zen segur aski ere, eskalapoinak erabiltzen zituen azkeneko herritarra; eta lehengokoen ixtorioak eta sorgin kontuak ederki ezagutzen zituen pertsona ere bazen

Bertzalde, kirol munduan ere mugitu zen Alzateneko familia: 1960ko hamarkadan Juanito Etxenike erremonteko pilotari fina izan zen, eta bere iloba den Joxe Angel Etxenike Amerikako Estatu Batuetako Las Vegasera joan zen zesta punta modalitatean aritzera.

1960KO HAMARKADAN ERREMONTAN ARITU ZEN JUANITO ETXENIKE

Xaretako hiztegia

- **Etxilarra:** *Ilarbila*.
- **Firla:** Bolo-jokoetako pieza, zutik izaki eta bota behar dena. *Boloa*.
- **Filda:** Neska bihurria («*Hori filda zikina!*»).
- **Fitxik (edo pitxik):** Deus ere, ja ere.

VENTA PEIO
GEHIAGO EMATEN DIZU

IBARDIN 31780 Bera
BEHOBIA 20305 Irun
LUZAIDE 31660 Luzaide
DANTXARINEA 31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25^a eta urtarrilaren 1^a izan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

Selauru hustea prestatzen hasia da errugbi elkarteak

Maiatzaren 13an iraganen da baina dagoeneko izena emateko epea zabaldu dute

TTIPI-TTAPA

Maiatzera begira hasia da Sarako Izarra errugbi elkarteak. Maiatzaren 13an selauru hustea antolatu nahi du eta horren karietara, parte hartu nahi dutenendako izena emateko epea ireki du. Informazio gehiago biltzeko eta izena emateko

06 88 16 71 59ra deitu behar da.

Gehienez 60 erakusmahai onartuko dituzte eta leku bakoitzagatik 15 euro ordaindu beharko dira.

Eguraldi txarra egiten badu hitzordua alde batera utz dezaketela aitzindu dute.

Lizuniaga, Lizarieta eta Berruet Bentako pasabideak zabalik

TTIPI-TTAPA

Ilbeltzaren 14az geroztik, hetsirik izan ondotik, iragan martxoaren 27an zabaldu zituzten Lizuniaga, Lizarieta eta Berruet Bentako pasabideak.

Frantziako Gobernuak, «terrorismoaren kontra» egitea-

ren aitzakia hartuta, Hego Euskal Herriaren eta Ipar Euskal Herriaren arteko mugako zortzi pasabide eduki ditu hetsirik, eta tarte horretan protesta andana egin dira irekitzeko eskatuz.

Gainerako bortz pasabideek, ordea, hetsita segitzen dute.



UTZITAKOIA

Denboraz harategia izana egokitzen

Marianne eta Tristan Sage harategikoek dendatik hurbil etxe bat erosi zuten, denboraz harategia izana. Orain dena moldatzen ari dira. Behean xarkuteria, jatekoen egiteko eta urdaiazpikoen idortzeko lekua egiten dute, lehen estaian apartamendu bat, bigarrenean eta hirugarrenean bi bizileku eta bi estudio sasoiko langileendako.



Herriko etxeak 2019ko urrian omen zuten Etxegarai. Argazkian Laborde auzapezarekin.

Huts handia sortu du Beñat Etxegarairen uste gabeko heriotzak

GANEX

30 urtez herriko enplegatua izana, ofizioz hargin ederra, ehiza maite zuena, kantaria eta herriko kantarien taldeko kidea... Herrian ongi ezaguna zen Beñat Etxegarai baina joan den martxoaren 18ko arratsaldean hil zen, etxean zelarik bihotzekoak jota.

Beti laguntzeko prest

Hori baino gehiago ere bazen Etxegarai. Denei, izan auzo edo izan lagunei, esku-kolpe bat emateko lehena izaten zen, zernahi gauzetako baliotsa eta maitagarria. Huts

handia eginen du bere inguruan. 62 urte zituen eta duela bi urte eskas hartua zuen erretreta eta horren karietara, herriko etxeak 2019ko urrian omenaldia ere egin zion.

Doluminak

Martxoaren 22an ehortzi zuten familiako hobian. Lerro hauen bitartez, bere andre Marie Michel, alaba Sandrine, seme Patrick bere lagunarekin eta hiru haur ttipie, dolumin beroenak nire partetik. Ez adiorik Beñat ikusi arte.



OLHAIN IKASTOLA

Kantuaren klipa grabatu dute ikastolan

Boga lelopean dirua biltzeko kanpaina abiatua du Seaskak, bosgarren kolegioa eraikitzeko, hain zuzen. Baina horrekin batera, Herri Urratseko kantuaren klipa grabatzen ari dira. Olhain ikastolako irakasle eta ikasleek ere ez dute hutsik egin eta hortxe ibili dira bideokliperako aktore lanetan.

Liderrak gure eskualdean



eta baita azterketa egiterakoan CIESeK **Nafarroa Garaiko mendialdean** hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.



Ttapi-ttapa
32.000 irakurle

Diario de Noticias 10.000 irakurle

Diario de Navarra 7.000 irakurle

Bertze batzuk 5.000 irakurle

Gara 1.000 irakurle


Berria 1.000 irakurle

SEXUAREN ARABERA


%60,3
EMAKUMEAK

%39,7
GIZONAK

ADINAREN ARABERA



IKASKETA MAILAREN ARABERA





Hainbat elkartek, plataformak eta erakundek agerraldia egin zuten martxoaren 25ean Iruñeko Katakrazen. UTZITAKOIA

Haize- eta eguzki-poligonoen kontrako manifestua

Nafarroako hainbat elkarte eta erakundek sinatu dute, tartean Lesakako Endara Bizirik Plataformak

TTIPI-TTAPA

Nafarroan trantsizio energetikoa eta garapen berriztagarria demokratikoki planifikatu ahal izateko prozesu sozial bat ahalbidetzea eskatu zioten Gobernuari eta Parlamentuari Nafarroa osoko hainbat taldek eta plataformak martxoaren 25ean Iruñeko Katakra elkartean egindako agerraldian, tartean Lesakako Endara Bizirik taldeak. Bitartean, erakunde sinatzaileek «gaur egun tramitatzen ari diren instalazio eolikoan, fotovoltaikoan eta lotutako azpiegituren administrazio-prozedura guztiak berehala eten daitezela» eskatu dute.

Endara Bizirik taldearekin batera, A tomar viento-Esteribar Bizirik, Gazteluzar (Leoz), Haize Berriak, Olaibar Bizirik, Urbasa-Handia bizirik plataforma, Salvemos Eguesibar zain dezagun eta Salvemos El Perdón 4.0 Erreniega Salba

Dezagun taldeek sinatu dute manifestua eta dagoeneko jaso dituzte lehen atxikimenduak: EHNE sindikatua, Ecologistas en acción, Lurra Nafarroa, Sustrai Erakuntza Fundazioa, Iruñeko Ekologistak Martxan, Extinction Rebellion Pamplona/Iruñea...

Proiektu berri eta ugari tramitazioan Nafarroan

Gaur egun, berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko proiektu berri eta ugari tramitatzen ari dira Nafarroan: Erriberako, Lesakako, Lizarrako (Urbasa-Andia), Lizoain-Arriasoitiko, Esteribarko, Olaibarreko, Ezkabarteko, Eguesko Haraneko, Anotzibarko, Erdialdeko Eremuko (Baldorba, Uxue, Murillo el Fruto, Tafalla, Artaxona) parke eolikoak eta eguzki-poligonoak Erreniagan, Erriberriin,... Ahaztu gabe Erribera osoan han-hemenka egin nahi

dituztenak. «Proiektu horiek egiteak inpaktu larriak eragingen ditu ekosistemetan eta finkatu nahi diren komunitateetan», diote sinatzaileek eta «nekez geldiaraziko dituzte adierazitako arazo klimatikoak».

Horregatik, talde hauek uste dute «trantsizio teknologiko soila ez dela gai berez berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko. Berriztagarriak ez dira nahikoak gaur egun kontsumitzen dugun energia kantitateaz hornitzeko. Beharrezkoa da kontsumorako xahutze horri modu planifikatu eta demokratikoan aurre egitea, edo bertzela errealitate gordina inposatu eta kontsumoa murriztu egingen da, indarrez eta plangintzarik gabe».

«Eztabaida sozial zabala abiaraztea beharrezkoa da»

Une erabakigarri baten aitzinean gaudela diote, «Nafarroan eskala handiko berriztagarrien proiektu ugari» ezarri nahi baitute. «Testuinguru horretan, beharrezkoa da eztabaida sozial zabala abiaraztea inplikaturako estamentu guztien eta herritarren artean», diote talde hauek. Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen aurreproiektua ez dela nahikoa izan uste dute.

N-121-An trafiko astuna murrizteko aukera baztertu du gobernuak

TTIPI-TTAPA

Javier Remirez Nafarroako Gobernuko bozeramaileak adierazi duenez, «N-121-A errepidearekin eta Belate eta Almandozko tunelen segurtasunarekin zerikusia duen guztia lehentasun bat izan da eta da oraindik ere». Gobernuaren ustez, baina, orain, «ez dira baldintzak betetzen» bide horretatik nazioarteko trafikoa murrizteko «segurtasun juridikoaren ikuspuntutik». Remirezek adierazi du ulertzen dutela alkateen «kezka», baina azpimarratu du «errepide hau lehentasuna dela gobernu honentzat eta dagoeneko abian jarri garela horretarako, bai 2+1 trazadurarako jarduketekin, bai tunelekin». Nabarmendu duenez, «governuek erabakiak arrazoitu behar ditugu, ezbehar-kopurua murrizteko edozein erabaki hartuko du gobernu honek, baina beti behar bezala arrazoituta eta zuzenbidean eta segurtasun juridikoan oinarrituta egingen dugu».

Alkateak «kezkatuak ez ezik, haserre ere bai»

Gure inguruko alkateek harri-duraz hartu dituzte gobernuaren solasak, kontuan hartuz horrelako erabakiak bertze lekuetan hartu direla, baita Auzitegi Gorenaren babesarekin ere. Juankar Unanua Igantziko alkateak aipatu digunez, «kezkatuak ez ezik, haserre ere bagaude, bai errepidearen eta Belateko tunelen egoerarekin, baita gobernutik eman duten erantzunarekin ere. Argi dago borondate politikoko kontua dela eta 'soluzioen gobernu' omen den gobernu honek, ez du N-121-A errepidearen egunero erabili behar dugunontzako soluzio politikorik».



Berako Mendi Maratoi Erdiaren azken sei edizioak irabazi ditu Ariznabarretak.

Ariznabarreta Manttaleren kontra igandeko erronka

Durangoko korrikalariak Berako mendi maratoi erdia eginen du, txandaka ariko diren 21 korrikalariren kontra

TTIPI-TTAPA | BERA

Manttale Mendi Lasterketa Taldeak erronka berezia presatatu du iganderako (apirilaren 11). Egun horretan Berako Mendi Maratoi Erdia egitea aurreikusita zegoen, eta due-la aste batzuk bertan behera utzi behar izan zen pandemia dela eta.

Hutsune hori betetzeko, Manttalek erronka bat antolatu du, Martiko enpresaren babesarekin, eta Oier Ariznabarretak eta Manttale taldeak indarrak neurtuko dituzte.

Erronka hagitz simplea da. Oier Ariznabarretak Berako Mendi Maratoi Erdiaren ibilbidea (21 kilometro) osatu

beharko du, eta Manttalek gauza bera eginen du Oierrekin batera, baina 21 lasterkariz osatutako talde batekin. Lasterkari bakoitzak kilometro bateko erreleboa eginen du. Hau da, Oierrek 21 kilometroak egingo ditu, eta Manttaleko 21 lasterkariak kilometro bana.

1 vs. 21

Lasterketa igandean 09:30ean hasiko da, maratoi erdiaren ohiko irteera-puntuan, Rikardo Baroja Eskolaren ondoan. Ariznabarretak lasterketako lehenbiziko kilometroa egiteko ardura duen Manttaleko lasterkariaren ondoan hasiko du. Manttaleko gainerako lasterkariak beren kilometroetan banatuak egonen dira, erreleboa hartu arte. Ibilbide osoa seinaleztatuta egonen da eta Oier Ariznabarretak hainbat hornidura puntu izanen ditu.

Manttaleren taldea gizon, emakume eta harrobiko gazteek osatuko dute.

Oier Ariznabarretak Berako Mendi Maratoi Erdiaren azken sei edizioak irabazi ditu, eta probako errekorra du gaur egun (1:37:30, 2014. urtean). Lortutako sei garaipenetan ordu eta 44 minutu baino gutxiago behar izan ditu.

Mendi Maratoi Erdi birtuala egiteko hondar egunak

Berako Mendi Maratoi Erdia birtualki egiten ari dira aurten. Martxoaren 27tik apirilaren 10era bitartean, nahi duen orok frogan parte hartu ahal izanen du bai lasterka zein oinez. Parte hartzeko Manttaleren webgunean dohainik izena eman beharko da bakarrik.

Bi modalitate izanen dira: Mendi Maratoi Erdia, 21 kilometro eta 1.300 metroko desnibel positiboarekin, eta Gazte Traila, 9,3 kilometro eta 300 metroko desnibel positiboarekin.

Nafarroan bizi direnek lasterketa Maratoi Erdi eta Gazte Trailaren zirkuituan bertan egiteko aukera izanen dute, ibilbidea apirilaren 10a bitarte seinalizatua izanen baita. Ibilbideak oinez zein lasterka egin daitezke. Oinez egiten badira, ez da beharrezkoa izanen egun berean bide osoa egitea, baina Manttaleren webgunera egun bakoitzean egindako tartea igo

beharko da. Era berean, nahi bezainbertze aldiz har daiteke parte. Gazte Traila edo Maratoi Erdia behin, bitan, hirutan edo nahi den aldiz guztietan egin daiteke. Bakoitzak egindako distantzia, desnibela eta denbora eskuz igo daiteke Manttaleren webgunera.

Nafarroatik kanpo bizi direnek eta perimetro itxierarengatik Berara etortzeko aukerarik ez dutenek ere edizio birtual honetan parte har dezakete. Maratoi Erdiaren edo Gazte Trailaren antzeko distantzia eta desnibela duen ibilbidea simulatu bertzetik ez dute egin beharko. Kasu horretan ere, Manttaleren webgunera distantzia, desnibela eta denbora igo beharko dituzte.

Edizio birtual honetan ez da saikapenik izanen, baina antolatzaileek Martikoren hamar produktu-sorta eta hamar kamiseta zozkatuko dituzte parte-hartzaile guztien artean.

Mistoa izan ezik Euskal Herriko txapel guztiak lortu ditu Beti Gaztek


TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko txapelketako azken bi txapelak jokoan izan ziren martxoko hondarreko asteburuan Getxon (Bizkaia). Aitzinetik jokaturako bortz kategorietakoak irabazita, lortu historiko baten atarira zegoen Beti Gazteko sokatira taldea, lehen aldiz kategoria guztietako txapelak janztea, alegia. Baina larunbatean txapelketa mistoan Ibarra nagusitu zitzaion. Beti Gazte txapelkunorde izan zen eta Txantreak osatu zuen podioa. Laugarren postua Berriozarrek eskuratu zuen eta bosgarren izan zen Antsoain.

Igande goizean gizonen 560 kiloko txapelketa, pisu arinekoa, izan zen jokoan. Hemen bai, nagusitasunez gailendu zen Beti Gazte, Txantrea bigarren izan zen eta Berriozar hirugarren. Pisu arineko zortzikote txapeldunear Joxe Angel Mitxelena, Beñardo Iantzi, Dominique Errandonea (Ezpeleta), Unai Gurrutxaga, Beñat Ordoki, Eneko Saldias, Paxkual Taberna eta Iñigo Altzugarai aritu ziren, Gerardo Telletxea entrenatzaile zutela.

Zazpitik sei Lesakara

Beraz, Euskal Herriko txapelketan jokoan zeuden zazpi txapeletatik sei irabazi ditu Beti Gaztek, emakumezkoen biak eta gizonen lauak. Txapelketa mistoan txapelkunorde izan dira. Iñigo Altzugarai tiralariak zioen bezala, «pena da, aukera ederra zelako aurtengoan, baina ez da plenorik izan». Halere, inoizko markarik onena egin du Beti Gaztek Euskal Herrikoan, ez gizonen, ezta emakumeen ere, ez baitzuten aitzinetik inoiz txapel guztiak irabazi.



Senior mailako finalistak ezkerrean eta gazte mailakoak eskuinean. Bietan, Errekako txapeldun. UTZITAKOA

Errekako bikoteak erremontean txapeldun

Nafarroako klub artekoa irabazi dute senior mailan eta kirol jokoetan gazte mailan

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Erremonte afizionatuko Nafarroako bi txapel jokoa izan ziren martxoaren 27an Iruñeko Labrit pilotalekuan.

Gazte mailan, Nafarroako Kirol Jokoen baitan, Donez-

tebeko Erreka elkarteko bi bikote izan ziren aurrez aurre: Julen Pikabeak eta Erik Garcia Otxandorenak 35-27 irabazi zieten Eneko Maylin eta Markel Leatxeri. Lehendabiziko partidua hagitz berdindua eta

ikusgarria izan zen, markagailua batzuen eta bertzeen aldera mugituz joan baitzen. Baina hogeita bina berdindu ondotik, Otxandorenak sakearekin asmatu eta min handia egin zuen.

Senior mailan ere, Nafarroako klub arteko txapelketan, Errekako bikote bat suertatu zen txapeldun. Izan ere, Imanol De Ruedak eta David Mitxeok 35-20 irabazi zieten Agoizko Maylin I.ari eta Segurari. Hasieratik bukaera arte, partidua nagusi izan zen Errekako bikotea. Gazte mailan Otxandorenak bezala, Mitxeok ere sakearekin min handia egin zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Iruñerriko erremonte txapelketaren finala hilaren 9an Labriten

Iruñerriko Erremonte Profesionaleko Txapelketa Caixabank Sari Nagusiko final nagusia apirilaren 9an, ortziralean jokatuko dute Iruñeko Labrit pilotalekuan (18:30). Josetxo Ezkurra doneztebarrak eta Aimar Saldias oiztarrak, Aldabek eta Azpirozek, eta Xanti Uterga doneztebarrak eta Barricartek jokatzea zuten hiruko finalaurrekoa apirilaren 3an Olatzen. Bi onenak ariko dira finalean. Argazkian erremonteko erremontistek Elgorriagako bainuetxean egindako elkarretaratzean.

Baztango XXXIX. pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

TTIPI-TTAPA | BAZTAN

Txaruta pilota elkarteak antolatutako eskuz binakako 39. pilota txapelketaren finalak martxoaren 28an jokatu zituzten Almandozko eta Iruñerriko Aranabia pilotalekuan. Lazko asteburuan abiatu zen txapelketa, 200 bikoterekin. Baina jardunaldi hura bakarrik jokatu ahal izan zuten. Egoera aldatu zenean, berriz ere txapelketari ekin zioten otsailaren 20an, pilotari nafarrekin bakarrik.

Umeak B: Izei Irazoki eta Xabat Mikelperizena (Bortzirriak), 13 – Amets Madariaga eta Beñat Goñi (Bortzirriak), 18

Kimuak B: A. Garcia eta E. Isasi (Ultzama), 2 – E. Olasso eta I. Beroiz (Atarrabia), 18

Haurrak B: Oier Goñi eta Aimar Gomez (Zizur), 18 – Unai Esain eta Eneko Santesteban (Esteribar), 16

Kadeteak B: Iker Sagardia (Almandoz) eta Ugaitz Apeztegia (Elizondo), 18 – Jon Nazabal (Barañain) eta Julen Sotil (Larraun), 12

Umeak A: Oinatz Mariezkurrena eta Ander Etxegarai (Arantza), 18 – Urko Telletxea (Igantzi) eta Jon Madariaga (Lesaka), 10

Kimuak A: Abraham Antimasberes eta Julen Bengoetxea (Barañain), 18 – Aitor Balda (Larraun) eta Zuhaitz Barbarin (Ultzama), 13

Haurrak A: Oier Prim (Ziga) eta Arkaitz Goienetxe (Amaiur), 16 – Oier Zabaleta eta Oinatz Etxeberria (Lodosa), 18

Kadeteak A: Egoitz Elizegi (Goizueta) eta Eki Mateorena (Leitza), 13 – Aimar Goldarazena (Larraun) eta Israel Antimasberes (Barañain), 18

Gazteak: Iker Ibarra eta Sohe Lazkoz (Oberena), 22 – Beñat Etxebere (Amaiur) eta Unax Apeztegia (Elizondo), 18.

APIRILAK 8 - 22

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ARTXIBOKOA

LESAKA Txamukos taldearen emanaldia

Txamukos mariatxien kontzertua.
Harriondoan, apirilaren 17an.

IKUSKIZUNAK

DONEZTEBE Odei magoa

Zineman, apirilaren 10ean,
18:30ean.

'Terra Willy' filma

Sarrera doan.
Zineman, apirilaren 18an.

LESAKA 'Hargiaren atzean' antzerkia

Harriondoan, apirilaren 10ean,
18:00etan.

LEITZA 'Caminho Longe' filma eta hizketaldia

Sarrerak Astiz eta Maimurren
bost eurotan.
Herri Aretoan, apirilaren 17an,
18:00etan.

'Ene Kantak dantzan' haurrentzako ikuskizuna

Sarrerak Astiz eta Maimurren
salgai.
Herri Aretoan, apirilaren 18an,
18:00etan.

'Dragoiaren gidaria' haurrentzako zinema

Sarrerak apirilaren 16tik aurrera
Astiz eta Maimurren 5 eurotan
(guraso elkartekoentzat 4
eurotan).
Herri Aretoan, apirilaren 24an,
17:00etan.

BERTSOA

LESAKA Bertsu bazkaria

Eñaut Agirre eta Unai Agirre.
Sagardotegian, apirilaren 17an,
14:00etan.

BERA Zapla! egitasmoa

Kultur etxean, apirilaren 24an,
18:30ean. Sarrerak: bertsoa.eus
atarian.

KONTZERTUAK

ELIZONDO Piano kontzertua

Arizkunenean, apirilaren 11n,
19:00etan.

LESAKA Txamukos mariatxiak

Harriondoan, apirilaren 17an.

En Tol Sarmiento

Harriondoan, maiatzaren 1ean,
17:00etan eta 19:30etan.

SOLASALDIAK

ELIZONDO Taupada egitasmoa

Arizkunenea kultur etxean,
apirilaren 9an, 16:00etatik
19:00etara.

IRURITA 'Parke naturala tokiko garapenerako tresna?' solasaldia

Gizarte Bilgunean, apirilaren
16an, 19:00etan.

ARANTZA 'Miñan' liburuaren aurkezpena

Ibrahima Balderen bizitza ardatz
duen Amets Artzallusen liburua.
Eskolako gimnasioan, apirilaren
10ean, 18:00etan.

IKASTAROAK

DONEZTEBE Sakelakoarekin bideo hobeak egiteko ikastaroa

Izen-emate epea: apirilaren 8a.
Herrigunean, apirilaren 10ean
eta 17an, 10:00etatik
13:00etara.

ELIZONDO Mendekotasuna dutenei arreta emateko ikastaroak

Nafar Lansarek antolatuta.
Lanbide Eskolan, apirilaren
14tik ekainaren 2ra eta
apirilaren 16tik maiatzaren
13ra.

LEITZA Marketing ikastaroa

Nafar Lansarek antolatuta.
Udaletxean, apirilaren 12an
hasita, 15:00etatik 17:00etara.

'Plazaola eta mehatzeko: kontatzeko asko duen ondarea'

Arratsaldean 17:00etan ibilaldi
gidatua trenbidean.
Herri Aretoan, apirilaren 24an,
09:30etik 15:15era.

ERAKUSKETAK

LEITZA 'Arimaren arrastoak' erakusketa

Herri Aretoan, apirilaren 11ra
arte. Astegunez 18:30etik
20:00etara eta asteburuetan
12:00etatik 14:00etara.

'Plazaola eta mehatzeko'

Herri Aretoko erakusleihoan,
apirilaren 19tik 25era bitarte.

ELIZONDO Baztan Ikastolaren erakusketa

Arizkunenean, apirilaren 25era
arte.

«Borroka feministaren parte izateko Lañaidek taldera etor zaitezke»

AROA NOBLE FLORES EZKURRAKO GAZTEA



Ezkurran sortu eta bizi den arren, lagun taldea Leitzan duen gaztea da Aroa Noble Flores (Ezkurra, 2001). Aste-gunez «herri ttiki gehienetako bizitanleek bezala» bizi-modu lasaia darama. Osasun dokumentazioa zikloko praktikak egiten ari da orain, Iruñeko San Migel klinikako artxiboan. Hortik kanpoko denbora bere zaletasunetarako, «marrazten, idazten, argazkiak ateratzen...», aritzeko baliatzen du.

Lañaidek talde feministako kide

Asteburuetan eta denbora librea duenean, maiz Leitzara jotzen du Ezkurra gazteak: «pena da baina herrian nire adineko besterik ez dago, ni baino hiru urte gazteagoa den ahizpa eta bere adineko bi izan ditut hurbilenak. Ondorioz, Leitzara jotzeko joera betitik izan dut eta gaur egun lagun taldea bertan dut...».

Betiko lagunez gain, gehiago egiteko aukera izan du aurtan sortu duten Lañaidek taldean.

Urte zaila izan da gazteentzat baina, muga guztien gaineratik, 16-26 urteko gazteak biltzen dituen eta feminismoa ardatz duen taldeak aurrera egiteko zirrikituak harrapatu ditu, feminismoaren aldarria «inoiz baino beharrezkoagoa» izan den momentuetan: «berria den zerbait agertzen denean gainerako arazo guztiei garrantzia kentzeko joera dago eta hori ez dela horrela erakutsi nahi izan dugu...».

Hala, «neska gazteon beharrak asetzeko espazio bat

«KORONABIRUSAZ SOLAS EGITEN DUGU BAINA ARAZO GEHIAGO BADAUDE»

izateko nahiak bultzatuta», hasi ziren lanean eta bertako Sastrakak talde feministarekin batera, «herri feminista baten alde borrokatzeko asmoa gidari», urtarrilean egin zuten taldekideek lehenbiziko bilera.

Hazitakoa hartu eta enborra sendotu

Elkar ezagutzea izan zen lehenbiziko pausoa. San Valentín egunaren aitzakian, maitasun erromatikoaren aurka, autoestima lantzeko tailer bat egin zuten. Ondotik, martxoaren 8a antolatzen aritu ziren: «igande horretan, hilaren 7an, tarranta morea irratsaioa eta elkarretaratze sinboliko bat egin genituen. Azken horretan 2018tik gaur egunera hil dituzten emakumeen izenak oihukatu eta lastargi bana piztu genien, *gure oihua zuen oihartzuna* lelopean».

Ekitaldien balorazioa «positiboa» izan da taldekideentzat: «bizitzan ari garen egoera kontuan hartuz, ekitaldietara jende asko hurbildu zelako eta harrera ona izan zutelako».

Hori guztia, Sastrakak taldearekin elkarlanean antolatu zuten, eta batzuek zein besteek argi dute feminismoa ez dela egun bakarrera mugatzen: «hazia jarri zutenei entzun eta heldu direnei enbor sendoa uzteko lan egin behar dugu. Egoera hobetu da, eskubide batzuk lortu ditugu. Hala ere, egungo gazteok kritikatzeko joera handia dugu, segurtasun falta dugu, etxera bakarrik joateko beldurra erekin bizi gara... Feminismoa urte askotako borroka delako».

«ORAINDIK ETXERA BAKARRIK JOATEKO BELDURRA IZATEN DUGU»

Talde irekia

Lehenbiziko pausok emateko sustengu handia izan da Sastrakak Lañaiderentzat: «hutsetik hasi gara eta asko dugu ikasteko. Horixe izan da lehenbiziko pausoa, ikastea eta elkarlanean aritzea...».

Hasiberriak izateak dituen mugak alde batera utzita, berriki sortutako taldea izateak kideak hurbiltzea errazten duela uste du: «beti da zailago sortua dagoen talde batean zure tokia harrapatzea...». Horregatik, talde hau sortu dela aprobetxatuz, «borroka honen parte izan nahi duten guztiei» taldera jotzeko eskua luzatu nahi izan die Aroa Noblek: «nik neuk ere ez dut esperientziarik, baina denok egin ditzakegu ekarpenak». Eta ez da hori bakarrik: «talde honek lagun talde bat egiteko aukera ere ematen du, bileretatik kanpo ere, pote baten bueltan, elkartzen gara eta».

Dagoeneko 17 lagun daude taldean: «giro ona eta konfiantza dago gure artean eta ez da lehendik hala zelako, taldeko askorekin lehenago harremanik ez nuen...». Pozik dago Noble, bere ideiak partekatzen dituen talde batean sartu eta bere tokia harrapatu duelako.

Normalean larunbatetan bildu ohi dira, 16:00etan, Herri-gunean. Dena den, pixkanaka hori zabaltzen eta «ateak irekita» dituztela jakinarazten hasiko dira: «sare sozialak egin ditugu eta hortik zabalduko dugu bileren berri».

Ideiei forma ematen

Aurreikuspen argiak dituzte eta horiei forma emateko gogotsu daude: «formakuntzekin segitu nahiko genuke, feminismo antiarrazista jomuga duen hausnarketa lantzeko ideiak lantzen ari gara, baita dirua lortzeko ekitaldiak egiteko aukera aztertzen ere». Ideiei forma eman eta hitzetik egitera pasatzea izanen da hurrengo egitekoa...

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



LESACA. Bi bizitzako etxebizitza salgai, 7.000 metro koadroko eremuarekin. ☎948 38 70 93 / 651 62 10 15.

BERA. Iparkarrika karrikan etxea salgai, bi solairukoa, bajera eta lur-sail ttiki batekin. Eta Dorrean 27m²ko garajea salgai. ☎ 948 63 03 92 / 650 00 68 87.

ERRENTAN EMATEKO

DONEZTEBE. Erreka ondoan etxe bateko pisuak errentan emateko. Goikoak 85 m² ditu: 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza. Baratz zati bat erabiltzeko aukera. 550 euro. Behekoak 75 m² ditu, sukaldea eta hiru logela. Baratzea erabiltzeko aukera. 450 euro. ☎687 63 27 37.

IRUÑEA. Milagrosan auzoan, uni-bertsitatetik hurbil hiru logela, saloi ederra eta komuna dituen pisua errentan emateko. Guztiz mobleztatua. ☎644 46 69 15.

DONEZTEBE. Zazpigarutze inguruan pisua errentan emateko. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela eta trastelekua. ☎948 45 19 64 (deitu arratsaldetan).

ERRENTAN HARTZEKO

Eraikuntza enpresa batek bertako arduradunarentzat, **Bera, Lesaka edo Etxalar** inguruan etxebizitza bat behar du. Hilabetean 700 euro arte ordaintzeko prest. ☎ 648 85 13 93 (Lurdes).

EROSI

BORTZIRIAK, MALERREKA, BAZ-TAN edo BERTIZARANAN etxea, baserria, borda edo terrenoa erosiko nuke. ☎688 45 84 34.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

LESACA. Otsango industrialdean pabilioia errentan emateko. 225 m² eta 50 m²ko entreplanta edo solai-ruartekoa. ☎670 04 11 61.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta **ERRAN.EUS** webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

LANA

ESKARIAK

Neska bat lan bila. Adinekoak orduka edo interna moduan zaintzen ariko litzateke, eta haurrak zaintzen ere bai. ☎632 75 93 48.

ESKAINTZAK

LESACA. Jatetxe batean zerbitzaria behar dute asteburuetan eta udan lan egiteko. ☎600 43 09 88.

Ile-apaintzailea behar dute, behar hasteko prest dagoena, ar-

duratsua eta lan egiteko gogoia duena. Bidali curriculum: amura-lesaka@gmail.com.

BERA. Jatetxe batean zerbitzaria behar dute asteburuetan lan egiteko. ☎948 63 03 92 / 650 00 68 87.

ETXALAR. Lizarieta Bentan sukaldaria behar dute apirilean hasteko. Zortzi hilabete kontratuarekin. ☎646 50 62 49 (Stephane).

DENETARIK

SALEROSKETAK



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramane

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT KANGOO FURGON 1.5 dci 90 CV - 50.200 km - 7.600 euro + BEZ


RENAULT CLIO IV 1.5 dci 75 CV 20.600 km - 8.950 euro

www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 451 426 (Joxean).



Giordani Leivonnais **sehaska berria** salgai. Erabili gabea. Koltxoia eta maindireak opari. Pago egurrezkoa da eta azpian kaxoi zabala du. Lau gurpil eta balaztarekin. ☎658 74 97 28.



Irokozko leihoak saltzeko, oscilobatiente sistemarekin denak. Ateak 3 unitate (218x134), leihoak 7 unitate 2 orrikoak (121x113), leihoak 3 unitate orri bakarrekoak (120x62). Goma bakoitzekoak. ☎636 70 12 04.



Remolkea salgai. 110 cm x 100 cm. Egoera onean, 290 eurotan. ☎606 10 01 11.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,04
- 1.koa 3,92
- 2.koa 3,77

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,15
- 1.koa 4,01
- 2.koa 3,87

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,00/4,10
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 6,20/6,50
- 8-10 kilokoak: 5,40/5,90

ZERRI-AZIENDAK


Zerrikumea (19 kilo): 73 €

Zerri gizona 1,460€


Zerramak 0,820€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua martxoaren 19tik 26ra bitarteko prezioak)


BAZTANGO ZA
TALLERRA



Peugeot Exter 4x4



Berlingo hdi
3.500 km



Vitara gasolina
90.000 km

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
baztangoiz@yahoo.es
www.baztangoizaiterrak.com

Sampi Aragón



FORD KUGA 1.5 ECOBOOST 150CV.
Finantza. prezioak - 19.000 KMS - 16.900€



VOLKSWAGEN POLO 1.0 TSI 95CV SPORT.
Finantzatutako prezioak - 7.000 KMS - 14.700€



VOLKSWAGEN GOLF 1.6 TDI 110CV DSG.
Finan. prezioak - 78.000 KMS - 14.200€

DONEZTEBE | 948 450 354

HILBERRIAK

- **Bertrand Ginete**, Sarakoa, martxoaren 7an, 95 urte zituela.
- **Bernadette Ameztzi**, Sarakoa, martxoaren 4an, 61 urte zituela.
- **Mª Josefa Adot Salvoch**, Arizkungoa, martxoaren 17an, 83 urte zituela.
- **Bernard Etxegarai**, Sarakoa, martxoaren 18an, 61 urte zituela.
- **Gregorio Bazterrika Monreal**, Sunbillakoa, martxoaren 19an, 85 urte zituela.
- **Asuncion Altamira Altamira**, Leitzakoa, martxoaren 20an, 78 urte zituela.
- **Filomena Aldaregia Azpiroz**, Elgorriagakoa, martxoaren 22an, 92 urte zituela.
- **Jose Mª Izeta Elizalde**, Elizondokoa, martxoaren 25ean, 87 urte zituela.
- **Matias Arozena Biurrarena**, Arantzakoa, martxoaren 25ean, 80 urte zituela.
- **Miguel Migeltorena Arraztoa**, Legasakoa, martxoaren 25ean, 83 urte zituela.
- **Mª Cristina Etxartea Irigoien**, Arizkungoa, martxoaren 27an, 89 urte zituela.
- **Mª Luz Urroz Ariztegi**, Oizkoa, martxoaren 28an, 93 urte zituela.
- **Consolacion Eraso Galarza**, Elizondokoa, martxoaren 29an, 102 urte zituela.
- **Juan Mari Amezari Arrijuria**, Elbetekoa, martxoaren 29an, 71 urte zituela.

SORTZEAK

- **Ibai Larretxea Elizondo**, Doneztebekoa, martxoaren 7an.
- **Nile Maritxalar Larralde**, Lesakakoa, martxoaren 11n.
- **Luka Irazoki Espelosin**, Sunbillakoa, martxoaren 23an.

URTEBETETZEAK



Sunbillako **Malen Oskoz Apeztegiak** apirilaren 1ean urtea bete du. Auniz urtez gure etxeko printzesari. Ataubxi, amabxi eta izeba-osaben partetik!!



Aurtizko **Xabat Mindegia Goñik** apirilaren 10ean 5 urte beteko ditu. Ongi-ongi pasatu eguna eta berendu goxoa prestatu e!! Muxu haundi bat Aurtizko familiaren partetik eta bereziki Maddi, Leiane, Naikari eta Joritzen partetik.



Mikel Bertiz Urrizak apirilaren 10ean 6 urte beteko ditu. Zorionak eta auniz urtez Legasa eta Narbarteko familiaren partetik. Egun polit bat pasatu!



Berako **Beñat Agara Hernandezek** 3 urte beteko ditu apirilaren 16an. Zorionak eta auniz urtez pottoko!!




Iturengo **Irati Iñigo Lujanbiok** 6 urte beteko ditu apirilaren 12an. Zorionak politta!



Irene Elizagoien Bizentek 28 urte beteko ditu martxoaren 29an. Zorionak eta auniz urtez! Espero dut egun ederra pasatu izana ingurukoekin! Besarkada bat!



Malen Oskoz Apeztegia sunbillarrak apirilaren 1ean urtea bete du. Auniz urtez gure etxeko neskatxari atta eta amaren partetik!!



Izarne Agesta Petrirenak martxoaren 29an 5 urte bete ditu. Zorionak gure etxeko printzesari Berako eta Sunbillako atabxi, atta, ama eta bereziki bere anaia Enaitzen partetik. Muxu pottolo bat.



Leitzako **Irai Rekon-do Ricok** 4 urte bete ditu apirilaren 3an. Zorionak gure etxeko aizkolari txikiari. Muxubxo bat amatxo eta aitatxoren partetik.



Martxoaren 25ean Etxalarko **Dolores Goienetxe Larralde** 94 urte bete ditu. Zorionak!!

URTEURRENA

**Juan Karlos
GOROSTERRAZU ELIZALDE**

1962/03/14-2020/04/09
I. urteurrena



Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Juan
ETXEBERRIA ETXEBERT**

Elizondon, 2021ko otsailaren 26an



Urritzaten sortu zinen lau haurridetan zaharrena zenbat momentu Erratzun mendi xokotan barrena Elizondon finkatua ia bizitza gehiena Maritxurekin osatuz familia goxoa.

Penaz agurtu zaitugu zuk hartzean atsedena seme-alabak bilobak eta familia dena lainoek idatzi dute zeruan zure izena Maite zaitugu aitebxi zauden lekuan zaudena.

ETXEKOAK

URTEURRENA

**Balaxi
ANDRESENA ZUBIGARAI**

2019ko apirilaren 15ean
II. urteurrena



Zure hutsuneak gure begiak malkoz betetzen ditu. Zure irribarrearen oroimenak gure bihotzak maitasunez betetzen du. Maite zaitugu.

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Joseba Andoni
URDANITZ ETXEBERRIA**

2002ko apirilaren 2an
XIX. urteurrena





Udaberriak bizia ekarritz zure askatasun modua gogoratzen du zure ametsak buruan izanik zure indarra gure egiten dugu.

ZURE FAMILIA



Hil-ondorako kontratuarekin, aukeratu nahi duzun agurra

Doluan laguntza eta herentzia tramitazioa

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan, Bertizaranan eta Malerrekan

T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**

www.tanatoriosirache.es

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo info@ttipi.eus

- ▶ **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**
Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €
Ttipi Txartela dutenek %10eko deskontua.
- ▶ **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan, (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).





**BAZTAN
BIDASOA**

Ehorzketak Zerbitzuak

BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERA**n San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3

web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere


24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

PLAZAN BAZAN



ZEIN ARRAIO!



Maripurtzil bihurri horrek zomorrotxo bat sartu nahi dio lagun bati patrikan. Ea asmatzen duzun zein aukeratu duen:

- Errepikatuta dago baina ez da ugariena
- Ipurdirik ez du agerian
- Ez du eztenik, ezta tronparik ere
- Ezin du hegan egin
- Sei zango ditu
- Aho zabalean hortzik baduela badakigu, baina ez zaizkio ikusten
- Oso bista aparta dela esan liteke.

INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>




Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak




ZAZPIKOA

Aurkitu bi zomorroen arteko 7 aldeak.




SUDOKUA

Ostiralak badu beste izen bat: BARIKU. Osa itzazu lauki zuriak hitz hori osatzen duten letrak kontuan hartuta (B, A, R, I, K eta U). Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



HANDITIK TXIKIRA

Makila-zomorro hauek neurriaren arabera ordenatu behar dira. Hau da, handienari 1 zenbakia emanaz, eta txikienari 8.



Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

778 aleko irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako aquariuma - 2 sarrera
Leandro Sagaseta Bertiz | DONAMARIA

Buatxabal - Kamiseta bat
Mirari Astiz Goldaraz | LEITZA

Giltxaurdi - 2 sarrera
Pili Migeltorena Etxenike | OROÑOZ-MUGAIRI

Karting Indoor Irun - Sarrera bat
Paloma Curto Vaquero | BERA

BKZ Abentura - 2 sarrera
Miguel Angel Retegi Beloki | DONEZTEBE

Zugarramurdiko Lezeak - 2 sarrera
Martin Saldias Otxandorena | IRUN

Erein - Liburu bat
Marifa Irazoki Dendarieta | ZUGARRAMURDI

Erein - Liburu bat
Susana Baños Sanchez | ETXALAR

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



2 sarrera

ONDDO TA PUNTO

www.onddotapunto.com



Kamiseta bat

MARTIKO

www.martiko.com



Lote bat

KIMETZ

www.kimetzbelardenda.com



Otar bat

IRRISARRI LAND

www.irrisariland.com



2 sarrera

Galaxy Park

www.galaxypark.eus



2 sarrera

**LI
BU
RU
AK**



- Gau Beltza
- Sotoan gordeak

txalaparta

www.txalaparta.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.erein.eus



www.giltxaurdi.eus